



# ARGIA

*“Euskararen balio politikoa oso posizio fuertea da, eusten badiogu”*

**BERNARDO ATXAGA**

40-44. orriak

#2.677 | 2020 / 02 / 16 | 3,90 €



**2019-nCoV eta izurri gehiago ekarriko dizue Globalizazioak**

10 | NET HURBIL



**Epailak artxibatu du eta ertzainek errekurritu egin dute**

21 | ARGIAREN AURKAKO AUZIA



**Eskutik doaz espetxea eta heriotza**

24 | GIZARTEA



DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

**LARRUN** # 250  
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



**CARME JUNYENT**

ZERK SALBATUKO DU KATALANA?

ARGIA.EUS/LARRUN

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:  
DANI BLANCO

## Iritziak

- 17 | MIKEL ZURBANO
- 18 | JUNE FERNÁNDEZ
- 19 | IVÁN GIMÉNEZ
- 19 | LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
- 20 | JOSE IGNAZIO ANSORENA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 36 | BIZI BARATZEA
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:  
ENARA IRURETAGOiena
- 54 | BERANDUEGI



OWEN GENT / THE MARSHALL PROJECT

### 24 | ESPETXEA ETA HERIOTZA

Zaballako makro-kartzelan bost preso hil dira 2019an, eta seigarren bat Martutenen. Amaia Lekunberrik erreportaje honetan landu ditu kartzelan hainbeste eriotza eragiten dituzten egoerak eta baldintzak.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

### Globalizazioak ekarriko dizue 2019-nCoV eta izurri gehiago

Pello Zubiria Kamino

12 | FERNANDO MENDIOLA

### “Inpunitateak eta frankismoa gutxiesteak ultraeskuinaren gorakada ekarri dute”

Reyes Ilintxeta

21 | KAZETARITZA EZ DA DELITUA

### Epailleak Lander Arbelaitz kazetariaren aurkako auzia artxibatu du baina ertzainek errekurritu egin dute

Argia

30 | POLITIKA | EKAITZ SAMANIEGO CURIEL

### “Jendartearen lotsak azpian ezkutatzeko alfonbra da espetxea”

Zigor Oleaga

34 | EUSKARA

### Bi eskola nahikoa direla erabaki du Iruñeko alkateak

Onintza Irureta Azkune

41 | KULTURA | BERNARDO ATXAGA

### “5.000 irakurle tinkorekin mundua mugituko genuke”

Gorka Bereziartua Mitxelena

45 | KULTURA | ORBEL

### Barruranzko begirada pausatua

Kepa Matxain

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea  
**Lehendakaria**  
Bego Zuza  
**Erredakzioa**  
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga  
**Diseinua**  
Maitane Gartzandiandia  
**Argazkilaria**  
Dani Blanco  
**Produktzioa eta inprimaketa**  
Antza S.A.L.  
**Administrazioa:**  
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde  
**Salmenta**  
Idoia Arregi, Karlos Olosola, Olatz Korta  
**Idazkaritza**  
Aloña Soraluze, Bego Zuza  
**Web garapena**  
Asier Iturralde  
**Informatika**  
Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikokoak

komertzial@argia.eus

harpide@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa

Xalbardin baita. 64122 Urruña

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**  
interaktiboa

**ADUR** software productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



# OASIAREN AZPIAN

"Zaborren gatazka" deitu zioten eskuineko alderdi eta hedabideek zero zabor sortzea asmo zuen bideari Gipuzkoan. Eta hara non, zaborra ke toxiko edo mendi bihurtzen txapeldun den Bizkaian, lehertu da gaia. Bi langile hil ditu kontrol zorrotzik gabe zarama "alfonbra azpian" pilatzeak –13 langile hil dira jada 2020ko 41 egunetan–. Lan-baldintza eta segurtasun neurri eskasak kostuak murrizteko, sare klientelarren arabera lizentzia partiketak, ingurumen irizpide betegabeak... Zaldibar beste orban bat bilaka daiteke "euskal oasi" gardenaren zerrendan: Victor Bravo, De Miguel, Zaldibar, Epsilon, Montai, Dennokinn, Bakio, Pinosolo, Balentzia-ga, Pasaia, Osakidetza, Marguello, Juan Luis Pagaldai, Zubiaurre, Hiriko...

📷 LUIS JAUREGIALTZO / FOKU    📸 AXIER LOPEZ











ZALDIBARREKOA DESASTRE BAT DA. DENBORA LUZEZ LARRIKI GAIZKI KUDEATUTAKO ZERBAITEN EMAITZA. EZIN DA KONPONDU, ETA HEMEN GAUDE ORAIN. AGINTARIAK ISILIK, ETA BESTEOK BELDURREZ. SEGURU MALLABIRA BEGIRA DABILTZALA HONDAKINAK MUGITZEKO. ETA BIRAKA JARRAITUKO DU USTELKERIAREN GURPILAK

@IzaroAndres



EZBEHARRAZ DEIGARRIA IRUDITU ZAIDAN GAUZETAKO BAT DA NOLA EUSKO JAURLARITZAKO SAILBURUEK EZ DUTEN ORAINDIK AURPEGIRIK EMAN. ORAIN ARTE, INGURUMEN ETA SEGURITASUN SAILETAKO SAILBURUORDEEK SOILIK HITZ EGIN DUTE. EZ SAILBURURIK, EZ LEHENDAKARIRIK

@urtzigartzia



4. EGUNA ETA BERDIN JARRAITZEN DUGU. EZ DUGU INTERESIK IKUSTEN GURE OSABA [DESAGERTURIKO LANGILEETAKO BAT] HORTIK ATERATZEKO. MIÑA AMORRU BIHURTU DUZUE. GURE SENIDEAK NAHI DITUGU

@helene\_alberdi



GOGORATU: ZALDIBARKO ZABORTEGIAN ARRISKUTSUAK EZ ZIREN HONDAKINAK BAKARRIK PILATZEN ZITUZTEN ETA ZUBIETAKO ERRAUSTEGIKO TXIMINIATIK CHANEL N° 5 LURRINA ATERAKO DA

@gorka\_bm



# Galdera asko Zaldibarren

@VOSTEUSKADI

## ARGIA

Otsailaren 6an, 16:00ak aldean gertatu zen ezbeharra: Zaldibarko Eitzaga auzoan Verter Recycling enpresak kudeatzen duen zabortegia kraskatu eta luiziak A8 autopista hartu zuen. Orduz geroztik jazotakoek eskandalo bihurtu dute ezbeharra. Lerro hauek idazterakoan oraindik desagertuta jarraitzen dute Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran langileek, amianto dagoelako erreskate lanak eten behar izan zituzten zabortegian, lindano susmoak agertu dira, inguruko herritarrek oso haserre eta kezkatuta daude aireko usain txarrarekin eta informazio faltarekin, berdin desagertuen senideak, eta agintarien kudeaketa negargarria izaten ari da.

Erreskate lanak abiatu eta eten egin behar izan zituzten lehenengo egunean, amiantoarekin egin zutelako topo, Eitzagako zabortegiak hondakin ez arriskuak kudeatzeko baimena zeukan arren. Gero jakin da amianto biltzeko baime-na espreski eman zitzaioela enpresari. Langileak eta sindikatuak kexu agertu ziren, hasierako erreskate lanetan aritu zirenak amianto bezalako gai arriskutsu bati dagokion babes neurri barik jardun zirelako.

## KUTSADURAGATIK LARRITUTA

Ostegunaz geroztik, su hartu du zabortegiak eta kezkatuta agertu dira herritarrek inguruko herrietara kea zabaldu delako eta usain oso txarra nabari dutelako. Zaborretatik Ermuako plaza kilometro bakarrera dago eta Eibarko Ipurua futbol zelaia, bi kilometrorra. Airean neurtu dutela eta kutsadura mailak parametro normaletan daudela adierazi du Jaurlaritzak. Ekologistak Martxan taldeak berriz, zabortegian lindanoa dagoen susmo sendoak dituztela zabaldu zuen eta horrek ere larritu du jendea. Halakorik dagoenik ukatu egin du Jaurlaritzak.

Bestalde, *Correo* egunkariak argitaratu duenez, Eitzagako zabortegian PCB siglaz ezagunak diren poliklorobifeniloak isuri izan dira. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2015eko epai batek ohartarazi zuen Eitzagako zabortegian poliklorobifeniloen isurketa deskontrolatuak egin izan direla. PCBek pertsonei eragiten dizkien gaixotasun eta efektuek zerrenda luzea osatzen dute.

## GALDERA ASKO ETA ERANTZUN GUTXI

Desagertuen senideak minduta eta haserre azaldu dira, informazio faltagatik. Isiltasuna nagusi izan da Jaurlaritzan eta otsailaren 10a arte ez dira prentsaurrea agertu. Mobilizazio zaratzuak egin dituzte egun horretan, Zaldibar, Eibar eta Ermu.

Azkenik, zabortegiko hondakinak bertatik atera eta beste leku seguru batera eramateko "hilabete dezente" beharko dituztela aitortu du Jaurlaritzak. Aztertuko dute ea EAE gai den halako hondakin kutsatuak nonbait gordetzeko ala beste norabait eraman behar dituzten.



# Yvetot



ARITZ GALARRAGA

**T**ira, mutiko haren irriker hartu zuten norabidea zein den oraindik ez dakit, baina azken egunotako kezka izaten du jarraitzen sorterriarekiko harremanak, erbestea ezagutu ondoren. Annie Ernaux idazleak badu liburutxo bat, *Retour à Yvetot*, zeinean gozoki azaltzen duen haurtzaroan bizi izandako herriarekin enkontrua, urte luzaz kanpoan bizi eta gero: “Ez nintzen sekula oraindik itzuli idazten duen emakume gisan”. Yvetot, Flauberten hitzetan Konstantinoplak adina balio duen Normandiako zokoa, Ernauxentzat oso goiz bilakatu zen beste zerbait: liburu bat idatzi nahi izan zuen lehenbailehen, handik ihes egiteko. Eta modu horretan hautsi zuen erreka uretan lixiba egitera dedikatzen zen belaunaldi luzeetako tradizioarekin. Nolabaiteko lotsa soziala sentitzen baitzuen. Hala, klase iheslari bilakatu zen, klasegabetua baina goitik.

Halako batean, ordea, ezagutzen zuen errealtateaz idatzi behar zela erabaki zuen. Orduantxe hasi zen sentitzen tentsio moduko bat, nola idatzi, hizkuntza literarioaren, ikasi, maite zuen haren, eta etxeko, dominatuen hizkuntzaren artean. Nola egin, idazketaren bitartez, atera garen mundu hori ez traizionatzeko? Asmatu zuen hizkuntza bat, hizkuntza klasiko literarioaren oinordeko eta aldi berean klase popularrek erabiltzen zituzten hitz eta esapideak integratuko zituen. “Guztion hizkuntzan literarioki idaztea da nire desioa. Politiko gisa defini genezakeen aukera bat da”. Proustek zioen, MZri irakurri nion, liburu ederrak hizkuntza arrotz suerte batean daudela idatzita. Eta arrotzasun hori, besteak beste, ohiko hizkuntzari zenbait osagai kenduz lortzen dela; eranstea, idazle txarren kontua da –Walter Benjamin, adibidez, “ni” izenordaina saihesten saiatzen zen–. Ernauxen kasuan, bizitza idazteko modu bilakatu zaio hizkuntza arrotz, baina orobat etxeko suerte hori. ●



## “INOIZ HARTU BEHAR EZ ZUEN BIDEA HARTU DU IRUÑA-VELEIAREN AFERAK”

### EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA

“Eepai-bidez ez, baizik eta bide zientifikotik argitu beharrekoa da Iruña-Veleiaren afera. Gaur egun eztabaida behar ez den lekura bideratuta dago eta euskal herritarrek gai horrekin interes bakarra dute, bertan agertutakoak egjak diren edo ez jakitea. Hori ezin da eepai bidez argitu, zientziaren bidea baliatu behar da horretarako eta gainerako bideak albo batera utzi. Horregatik, hain zuzen ere, Kontseiluak ez du egoki ikusten afera judizializatzea eta, une oro, herritarren errugabetasun-printzipioa ardatz izan behar dela uste du”. 2020/02/03





# Laneko heriotzak eta ardurak



JUAN MARI ARREGI

Urte berri honen hasierarekin batera, lan-istripu hilgarriak ugartu egin dira Euskal Herrian. Lerro hauek idazterakoan jadanik hamahiru langilek galdu dute bizia aurten beren lanagatik. 2019an, laneko gaitz horrek 46 pertsona eraman zituen Euskal Herriko bost lurraldetan.

Langile bat hiltzen den bakoitzean, kapitala, enpresa eta administrazioak salatzen dituzten lanuzte eta mobilizazioak ikusten ditugu, kontratu askoren prekariedade azaleratzeko, segurtasun neurriak eskatzeko edo lan baldintzen hobekuntzetan inbertsiorik ez dela egiten gogorarazteko. Horrela salatzen dute enpresa-batzordeek eta sindikatuek, eta arrazoi osoa dute; positiboa da hori egitea gainera, heriotza bat erregistratzen den bakoitzean.

Aitzitik, enpresa-batzordeek, sindikatuek eta langileek berek ere, beren gain hartu behar dute laneko gertaera askori aurre egiteko duten ardura. Lehenak izan behar dira segurtasun neurriak bete eta betearazten. Lehenak lankideei ohartarazten ez daudela baldintza onean lanean. Enpresari segurtasunean inbertitu dezala exijitu beharko liokete lehenik eta behin; eta azpikontratak berrikusi ditzala eskatu, lan-kontratuetak baldintzak eta segurtasun neurriak zorrotz bete daitezzen.

Langileek, enpresa-batzordeek eta sindikatuek ardura hori beren gain hartuta, indar gehiagoz eskatu ahal izango diete kapitalari, patronalari eta administrazioei euren ardura hartzeko. Langileen heriotza gehiago saihestea, edo ahalik eta gehien murriztea, denon esku ere badago. ●



## Hegemonia lortu Ahal Dugu

MIKEL ASURMENDI

40 urteko diktaduraren osteko 40 urteko demokrazia-aldia joan da. Batetik bestera igarotzeko Trantsizioa delakoa burutu zen. *Unionistentzat* loria-tsua, *separatistentzat* zorigaitzokoa. Bizkitartean, EAJrentzat, *unión* eta *separa* artean, txit baliagarria. Demokrazia-aldian bipartidismoak berea egin du Espainian, baita Frantzia ere, eta orobat Europa osoan. Honezkerok ez dago ezkerrik ez eskuinik. Neoliberalismoa eta populismoa gailendu dira.

XXI. mendeko demokraziaren -ereduaren- bitartez boterea hartzea kimera da; iraultzaile inozoen olgeta lastimagarria. Podemos alderdia horren lekuko. 2011ko maiatzean (M15) abiatu zen gizarte mugimenduaren zoriaz sortua; Ahal Dugu Euskal Herrian. Espainiako krisi sozialaren arrazoietakoa bat *Trantsizio okerra* izan zen Podemosen sortzaileentzat, egungo demokrazia 1978ko erregimenaren ondorio zuzena *delako-izan zelako* honezkerokoa. PSOEek eta PPK herriari demokrazia ebatsi omen zioten, euren bipartidismoak *kasta* edo elite menderatzailea bermatu zuen agintean. Hamar urte eskasen ondoren, hona ikaspena: politika posiblearen artea izaki, edozein dela alderdi baten norabidea, posibilismoak *zuritzen* du haren aldaketa. Falangisten *urdira zuritzen* ikusi genuen eta komunisten *gorria zuritzen* ikusi dugu.

Anartean, 40 urteko demokraziak ez du bigarren Trantsiziorako aukera ematen. Horixe da, bada, XXI. mendeko demokraziaren bertuteetako bat. Mendez mende erregimen politikoez sistemaren benedikazio santua ezarri nola, halaxe bermatzen dituzte demokrazia berriek egungo erregimenak.

Trantsizio garaian, sena eta logika naturalez, iraultzaile inozok "40 urte eta gero, EAJ gutxiengoa izanen da", zioten adorez. Hots: "Jeltzaleen seme-alabak ezkerreko abertzale iraultzaileak bilakatuko dira". Bada, ez, 40 urte ondoren, jaiotzeko ziren haiek ez dira iraultzaile ez abertzale.

Podemosek *ahal*-men kamaleoikoa erakutsi du. Ahal dugu! Horra boterera iristeko hitz giltzarriak. Estatuan PSOErekin nola, "Euskadi"-n halatsu ere EAJrekin. *España es diferente* eta *Euskadi bestelakoa*. EAJren 40 urteetako hegemoniak gaineratiko espektro politikoen botoak bereganatzeko *ahal*-men itzela izan du. Iraganeko *Comunión* eta *Aberri*, *Unión* eta *Separa* dira egun: "Ez bele, ez zozo".

Ezker abertzalearen EH Bildu bide beretik joan *ahal* da. Hegemonia xede, demokrazia helburu, hona beste hitz giltzarri batzuk: "Gizartea eraldatzeko politika egin beharrean, zure alderdia aldatzen *ahal* da jendarte osoaren mesederako". Hori egiteko lengoia eraldatzea funtsezkoa izaki. Sortu alderdiarena, kasu. Ezker abertzalearen indar faktikoa bere jerga aldatzen hasia da. 40 urtez "botere faktikoak" erabili ondoren, "estatu sakona" erabiltzen hasia da. Sistemaren eraldatzea: "Botere faktikoen menpe izatetik estatu sakonekoen menpe egotera doan aldia, dagoen alde". ●





©SMELLADOCRUZ


## ESA URTEGIAK MEHATXATUTAKO HERRIA

**ARAGOI.** Zigoze herria Aragoi dago, Esca ibaiaren ertzean, hura eta Aragoi ibaia Esan urtegitratzen diren puntutik hurbil. Urtegia handitzeko obrak direla-eta, aipatu puntuan urari eusteko dike bat eraikiko dute, eta dike horren eraginez Ezka ibaiak gain har dezakeela-eta, murrua eraiki dute Zigozeren alde batean. Laku artifizial baten itxura izango duen azpiegiturara 27 milioi euro bideratuko dituzte. Dikea eraiki ahal izateko hainbat biltegi eta baratze desjabetu dituzte, baita etxebizitza batzuk ere.

## INOR EZ DA ILEGALA

**93** pertsona erreskatatu zituen Aita Mari ontziak Mediterraneoan, 16 emakume (3 haurdun), 40 gizon eta 37 adin txikiko. Lerro hauek idazterakoan (otsailaren 10), portu seguru baten zain dago orain ontzia.

**78** lagun erreskatatu zituen Mediterraneoan Aita Marik 2019ko azaroan.



## Bortxaketa salatu dute Donibane Garaziko adin txikiko bi neskek

**ARGIA**

Donibane Garaziko Navarre lizeoko bi ikaslek jarri dituzte salaketak, bortxatuak izan zirela denuntziatuz. Taldekako bortxaketa izan dela jakitera eman du prokuradoreak. Bortxaketa Donibane Garaziko etxe huts batean gertatu da, zeinetan batzeko ohitura duten lizeoko gazteek.

### GALDEKATUAK ETA KANPORATUAK

Donibane Garaziko jendarmeria ari da kasua ikertzen. Salaketen hari- ra, lizeo bereko bi ikasle gizonetako atxilotu zituzten, 17 eta 18 urtekoak, baina galdekatu ostean aske utzi dituzte, ikerketapean. Navarre lizeoak, bere aldetik, bi ikasle gizonetakoak behin-behinean kanporatzea erabaki du, hamar eguneko epean diziiplina batzordearen aurretik pasa arte.

### SALAKETA

Bortxaketak salatzeo eta bortxatuei elkartasuna adierazteko elkarretaratzeak egin dituzte Baionako Etxepare lizeoko ikasleek. "Patriarkatuak erasotzen gaituelako, neska\* ikasleok autodefentsa feminista" lelopean, hezkuntza sistema heteropatriarkala dela salatu dute eta aditzera eman dute hezkuntza eredu sistema feminista ikasleen antolakuntzari eta borrokari esker lortuko dela.



**DE MIGUEL.** Ustelekeriagatik zigortutako Alfredo de Miguelek eta Koldo Otxandianok bi elkarte publikotan jarraitzen dute lanean: Hazin eta Miñanoko Parke Teknologikoan. De Miguelek, gainera, hiru soldata igoera eta karguz goratze bat izan ditu auzia hasiz geroztik.



**ARMAGINTZA.** Bilboko Ingeniaritza Eskola-ko jardunaldi batzuetan protesta egin du "EHU, moztu kolaborazioa armagintzarekin" sareak. Salatu dutenez, "unibertsiteate publikoak saltzen du balioetan oinarritzen dela, baina ezkutuan kolaborazioak mantentzen ditu armagintza sektorearekin".



**IRLANDA.** Mende bat eta gero, Sinn Féin irabazle atera da Irlandako Errepublikako parlamenturako hauteskundeetan. Fianna Gael alderdi demokristauak eta Fine Fail zentristak azken mendean finkatutako bipartidismoa hautsi du Sinn Féinek. Hala ere, ez du samurra izango gobernu eratzeara.



# EZ TEMATU TXINAKO SAGUZARREKIN

## GLOBALIZAZIOAK EKARRIKO DIZUE 2019-NCOV ETA IZURRI GEHIAGO

Munduko Osasun Erakundeak 2019-nCoV deitzen du 2020. urte hasierako osasun alarmaren erruduna, Wuhan koronabirusa deitzen dio euskarazko Wikipediak, Txinako gripe berria entzun daiteke kalean... Hedabideek krisiaren jarraipenaz antolatu duten espektakularekin, esango litzateke pandemia katastrofiko heldu dela. Oraingo birus berri batek zabalduko pneumonia epidemia da, globalizazioaren albo kalteetako bat. Kalte larria, hori bai.

### PELLO ZUBIRIA KAMINO

**A**sko dira egunero begirada bat ematen diotenak AEBetako Johns Hopkins institutuak interneten daukan mapa interaktiboari: 2019-nCoV koronabirusaren eraginak –kutsatuak, hilak eta sendatuak mundu osoan bezala herrialdeka– jarraian eguneratzen ditu, Munduko Osasun Erakundeak eta AEBetako eta Txinako agintariek eskainitako azken datuekin. XXI. mendeko bigarren hamarkadan, munduko zoko batean agertutako birus berri bat planeta osora nola –hegazkinez, prefosta– zabalduz doan behatu dezakegu une oro.

Zortzi astetan dozenaka milaka jende kutsatu eta milako erdi bat hiltzeaz gain, inon ikusi gabeko berrogeialdi eta setio egoerak ikusi dira Txinako Wuhan eta beste hiri handietan eta beste herrialdeak hasi dira Txinarekiko mugak ixten ez bada bai gogortzen. Gaur munduko ekonomiaren motor nagusia den erraldoiaren hazkundera berehala kaltetu du, txinatarrekiko xenofobia indartzen ikusi da... Panikoa. Espektakulua ere bai.

Asko aipatu da koronabirusa Wuhan-gu Huanan merkatutik hasi zela zabalitzen, azoka hartan erakusten eta saltzen diren animalia basatiren batetik gizakira jauzi eginda. Sugeez hitz egin zen aurrena, geroago saguzarra azaldu da munduaren aurrean izurri berriaren errudun.

*Monthly Review* aldizkarian Rob Wallace epidemiologoak dioenez, Mendebaldeko jendeon aurreiritziei ondo dagokien arren epidemiaren errua egozte

urruneke txinatar ustez atzeratuek klase guztietako animalia basatiak jateko omen daukaten ohiturari, lehenbiziko 2019-nCoV kasuak azoka horretatik aparte azaldu omen ziren eta azoka horretan bertan ere kutsatze kasu asko gertatu ziren txerrien salerosketan ari zirenen artean.

Sukar afrikar epidemia batek Txinako txerrien erdiak hil zituen justu iazko urtean eta honen birusaren inguruan osatu ahal izan da koktel hilgarri berria. *Big Farms Make Big Flu* (Granja handietatik, gripe handiak) liburua den egilearen Wallacek dio Txinako merkatuetan elkarren ondoan saltzen direla inguruetako *betiko* ehizakiak, nekazari txikien ekoizpenak eta laborantza edo akuikultura industrialetako produktuak, garapen eredu kontrolgabe baten irudi.

Basoan, espezie jakin batean ohikoa den birus batek gizakiarengana jauzi egite horretan, Wuhandik oraingoan zabaldu den suteak badu hein batean antza aurretik Ebolarekin Kongon gertatuarekin. Globalizazio neoliberalak mundu osoan gogortu du natur baliabide guztiei etekin ekonomikoa ateratzeko presioa, urari edo mineralei bezala soro eta basoei. Eragiten dituen hondamendi ekologikoei gehitu behar zaie oihanetako abereen artean ohikoak diren patogenoek inguru zibilizatuetera jauzi egitea, gero gurutzatzeko nekazaritza industrialak granja erraldoietera abereen artean mutatu diren beste patogenoekin.

“Txina ez da salbuespena”, dio Wallacek, “AEBak eta Europa ere izan dira gripe mota berrien habia, H5N2 eta H5Nx duela gutxi; haien multinazional eta esku-makil neokolonialek eragin dute Ebola zabaltzea Afrika Mendebaldean eta Zika Brasilen. AEBetako osasun agintariek agro-industria babestu zuten H1N1 eta H5N2 izurrien garaietan”.

### LUR OSOA, HESIRIK GABEKO PANGEA

*Le Partage* ezkerreko aldizkariak 2019-nCoV izurria historiaren testuinguruan kokatu nahian idatzi duenez, epidemiak Neolito Arotik datoz; aski fenomeno berria dira beraz gizakion eboluzioaren kate luzean. *Homo Domesticus* liburua idatzia duen James C. Scott antropologoaren hitzak hartuz, “ia gaixotasun kutsakor guztiak azken hamar mila urteotan agertu dira, asko duela bost mila urte eta *zibilizazioaren emaitza* dira. Kolera, barizela, elgorria, gripea, baztanga, agian paludismoa ere bai, agertu dira hiritartzearekin eta nekazaritzarekin”.

Scotten arabera, gizakiok 26 gaixotasun partekatzen ditugu oiloekin, 32 arratoi eta saguekin, 35 behorrekin, 42 txerriekin, 46 ardi eta ahuntzekin, 40 behiekin eta 65 etxekotuen artean gure lagun zaharrena den txakurrarekin. Zehazki gripea lotuta omen dago duela 4.500 urte inguru etxekotu genituen uretako hegaztiekin. Txinako hego-ekialdea denez oso aspalditik munduan gizaki, txerri, oilo, ahate, antzara



**INDONESIAN ERE**

2019-NCOV  
KORONABIRUSARI HESIA  
JARRI NAHIAN: TXINATIK  
IRITSITAKO BIDAIARIAK  
DESINFECTATZEN.

eta animalia basatien kontsumo gehien metatzen duen gunea, ez da harritzekoa bera izatea hegaztietatik eta txerrietatik abiatutako gripe berrien laborategia.

Europarroi dagokigunez, aspalditik ezagunak dira hainbat izurri nabarmen. Esaterako, Kristo Aurreko 430. urtetik 426ra bitartean, Atenasek bat izugarri handia jasan zuen, Persiatik gerran etorritako tropen harremanetik iritsia. XIV. mendean Europan sartu zen –Genoako portutik, diotenez– izurri beltza, bubonikoa ere deitua, kontinenteko biztanleen artean sekulako sarraskia eraginez; ondoko mendeetan ere behin eta berriro berragertuz. Izurriok mundializazioaren hasierarekin jauzi izugarri bat egin zuten. Duela 500 urte Europak bere itsasontziak bidaltzen zituen Ipar eta Hego Ameriketara, Asiara eta Afrikara. Eta ordura arte ekologiaren ikuspegitik ia

isolatuta egondako kontinenteak berriro lotu zituzten, ez haien lurzoruak batuz baina bai batetik bestera landareak, animaliak, birusak eta baita kulturak ere zeramatzen gizakien bidez. Oso berandu hasi gara jakiten zenbateraino sarraskitu zituzten Ameriketako biztanleak konkistatzaileek eramandako gaixotasun kutsakorrek: ordurako guk, europarrok, mende luzeetako hautespen naturalez elgorri, barizela, errubeola eta beste hainbat gaixotasunen kontrako immunizazio maila bat lortua geneukan.

Ez da aspaldi ospatu zela *gripe espainiarra* deituaren mendeurrena, Lehen Mundu Gerraren ostean munduan dozenaka milioika biktima eragin zituen harena. Orduan jendeak ez zuen hegazkinez bidaiatzen. Aldiz, mugikortasun totala ezin eztabaidatuzko balio sakratu bihurtuta dago 2020an. Oso antzinako

denboretan, duela 540 milioi urte, planetako lehor guztiek osatzen bazuten geroago kontinentetan zatitzen joan den Pangea izeneko kontinente bakarra, gaur mugikortasun totalak Lurra berriro bilakatu du Pangea bakar. Honek planetaren ekologia osoan –gizakiongan barne– eragin behar dituen astinduen erakusle berri bat da Wuhaneko pneumonia, baina etorriko dira gehiago.

Azkenean, zein hilgarri suertatuko ote da 2019-nCoV izurritea? Zorrotzegi ala bigunegi ari ote dira agintariak? Rob Wallace biologo eta epidemiologoak urtarill amaieran laburbildu zuenez, “oraindik ez ditugu ezagutzen ez gaixotasunaren jatorri zehatza, ez kutsatze ahalmena, ez harentzako tratamenduak, horrek azaltzen du zergatik dauden 2019-nCoV-az hain alarमतuta epidemiologoak bezala osasungintzako agintariak”. ●

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f t



# Fernando Mendiola

INTSUMISOA, DESOBEDIENTEA ETA MEMORIALISTA



## INPUNITATEAK ETA FRANKISMOA GUTXIESTEAK ULTRAESKUINAREN GORAKADA EKARRI DUTE



Intsumiso presoan izan zen gazte garaian. Historialaria eta unibertsitateko irakasle berritzailea da egun. Gerra garaiko eta diktadurako errepresaliatuen ahotsak biltzen dihardu Memoriaren Bideak kolektiboan eta orain Memoria Historikoaren Nafarroako Dokumentu Funtseko zuzendari gisa. Berak badaki inpunitateak isiltasuna dakarrela eta isiltasunak inpunitatea.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

**Historiako eta Ondareko Gradu berria ezarri duzue NUPen eta zeu zara arduraduna. Orain arte Historia soilik Opuseko unibertsitatean ikas zitekean Nafarroan. Egoera horrekin amaitzeaz gain, zer beste berrikuntza dakar?**

Esklusibitate horrekin bukatzea oso garrantzitsua da eta gainera nahiko eskaintza original eta modernoa egin dugu.

Ikasketa plan klasikoek eskaintzen dituzten irtenbide profesionalak dira, gehienbat, irakaskuntza eta, neurri txikiagoan, ikerkuntza. Gradu berri honek, aldiz, bi espezialitate ditu, biak ondarearen kudeaketara bideratuak: bitartekaritza kulturala eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa. Gaur egun museo eta kul-

tur gune gehienek mediazio zentroak dituzte gizartearekiko harremana sustatzeko. Beste espezialitatean kudeaketa ekonomikoa da ardatza eta hori baliogarria da bai enpresa pribatuan bai administrazioan lan egiteko.

**Ikasgaiak ere berriak dira?**

Ikasgai tematikoak dira. Gaur egungo arazoan jatorri historikoa ulertzeko generoaren papera ulertu behar da bilakaera historikoan eta berdin giza mugimenduen historia edota sozio-ingurunearen historia-rekin. Ikasteko modua ere desberdina da, gure gaiak ez daudelako lurraldetasunari lotuta. Historiografia modernoaren joera da lokala eta globala ezin direla bereizi.

**Euskara presente dago gradu honetan?**

Ikasturte honetan ez, baina hurrengoan ikasgaien %20 ikasi ahal izango da euskaraz. Pauso bat da eta espero dezagun etorkizunean hori handitzea. NUPen orain euskararen aldeko jarrera dago eta ikusiko dugu ikasleen partetik ere eskaririk ba ote den. Ikasleen harrera oso ona izan da. Plaza guztiak, 50, bete dira eta gainera euskaldunen portzentaia altua da, NUPeko ikasleriaren batez bestekoaren gainekoa. Asmoa da euskarak presentzia izatea hasieratik bukaerara arte, eta baita gradu-ondoko ikasketak zein praktikak ere hizkuntza honetan egin ahal izatea.









### Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentu-funts berrituaren zuzendaria zara orain. Zer da hau?

NUPeK Nafarroako Parlamentua eta Foru Gobernuarekin lankidetzan eginko erabilera publikoko tresna da. Bertan errepresaliatu edo 1936ko kolpearen ondoren hainbat indarkeria mota jasan zituzten milaka pertsonaren datuak biltzen ari gara. Une honetan 22.555 errepresaliaturen datuak daude bilduta. Funtsa 2011n sortu zen parlamentua eta unibertsitatearen artean sinatutako akordioaren bidez. Garai hartan UPN zegoen agintean, baina parlamentuan bestelako gehiengo zegoen eta horri esker lortu zen hau martxan jartzea. Gero, 2016an gobernua gehitu zen hitzarmen honetara. Emilio Majuelok eta beste historialari batzuek eginko bidearen jarraipena da hau, eta orain aurkeztu ditugu datu basea eta webgune berrituak.

### Nola egin daitezke bilaketak?

Ahalegin berezia egin dugu errepresio ekintzen sailkapen berria egiteko. Hamabi kategoria eta 64 azpikategoria

ezarri ditugu. Horien artean dira itxialdiak, torturak eta eraso fisikoak, genero erasoak, ilea moztu zieten emakumeak, bortxatutakoak, errepresio ekonomikoa edota hizkuntza eta kulturarekin lotutako zigorrak. Zenbait filtro jarri ditugu erabiltzaileak erabaki dezan bilaketak nola egin. Horrela, herriz herri, jaioterria, bizitokia, errepresio mota, sexua, militantzia politikoa edota gatibualdi zentroaren arabera has daiteke informazioa bilatzen.

**Zer gertatu da Joseba Asironen legealdian Iruñean zabaldu zen errepresio frankistaren memoria historikoari buruzko informazio-bulegoarekin?**

Orain itxita dago, baina tramiteetan ari gara jarraipena emateko, behintzat lokal berean segitu ahal izateko. Lan asko egin da jende asko hurbildu delako. 200

elkarrizketa egin dira bertan eta ikerlariak dokumentazio oso garrantzitsua bildu dute. Erakundeak eta herri kolektiboaren inplikazioa eta beste zenbait unibertsitatekin izan dugun elkarlana ezinbestekoak izan dira proiektu hau bideratzeko.

### Zer da errepresioa, gerrako fusilamenduz gain?

Frankismoa bezalako diktadura batean dena da errepresioa, arazoa da nola neurtu errepresio hori. Diktaduraren lehen garaia oso gogorra izan zen: 140.000 pertsona inguru erailak izan ziren, 100.000 inguru gerra garaian eta beste 40.000 gerra ondoren, 1948an gerra egoera ofizialki desaktibatu arte. Hauek dira eraildakoak edo kartzelatan hil ziren presoak. Kopuru honetan ez dira bonbardaketan ondorioz edo frontean hil zirenak. Gertaera historikoak eta datuak ikusita esan daiteke frankismoa Europako erregimen odoltsuena bat izan zela eta asko eztabaidatzen da genozidioa izan zen ala ez.

Errepresioaren moduak aldatuz doaz denborarekin. Gerra garaian depurazioak egiten ziren. Ondorengo urteetan, aldiz, langile, ikasle eta auzo mugimenduak hasten direnean, profil desberdineko pertsonak hasten dira errepresaliatzen, eta errepresio motak ere desberdinak dira: isunak, atxilo-aldi motzak epaiketarik gabeak, torturak... Erregimena aldatzen doa. Gerran jende ezkertiarren aurkako ondasunen konfiskazioak egiten ziren eta holakoak asko izan ziren hemen, Nafarroan. Gerraoostean, aitzitik, ondarearen ebasketa hori burokratizatu egiten da, 1939an indarrean jarri zuten Erantzukizun Politikoen Legearen bidez.



**Gizartea oso polarizatua egon zen gatazka armatuaren garaian eta argi eta garbi ikusten da hori oztobat izan zela martxan zeuden aldaketak azkartzeko"**

**Memoriaren Bideak kolektiboari esker Francoren esklaboen berri izan du jende asko.**

Neurri batean bai. Nafarroako Pirinioan 2.000 pertsona aritu ziren bortxazko lanak egiten. Horietako asko Igarri eta Bidankoze arteko errepidea egiten. Gu 2004an hasi ginen preso hauei eta haien senideei omenaldiak egiten. Modu honetara jende gehiago animatu zen hitz egitera eta gatibu eta familia gehiago ezagutu genuen. Ha-



sierako urte hartan hamabi preso ohik parte hartu zuten, baina denak hil dira. Azkenak, Vicente Lacasia eta Luis Ortiz Alfau, orain dela urtebete hil ziren.

Esklabo hauen bizi baldintzak ikaragarri gogorak ziren, haiei eginiko elkarrizketetan kontatzen zuten bezala. Manuel Soriano, Granadako Galera herrikoak hala kontatzen zuen: "Bazen behin preso bat hezur bat marraskatzen eta lurrera bota zuenean, beste bat etorri eta hezur hori bera marraskatzen hasi zen gose ikaragarria zegoelako".

**Apurtzen ari da urtetako isiltasuna?**  
Esan daiteke baietz.

**Zergatik dago isiltasuna?**

Isiltasuna ere produktu historiko bat da. Ez da kontu psikologiko hutsa. Oso lotuta dago politika publikoekin eta komunikabideen jarduerarekin. Pertsona batek bere bizipenei garrantzi publikoa ematen zaiola ikusten badu, errazago hitz egingo du horretaz eta harrotasuna sentitzera ere iritsi daiteke. Hori izan ezean, eremu publikoan ez bada ezer egiten eta oraindik beldurra bada, jendeak ez du hitz egiten. Espainiako Estatuan isiltasuna Trantsizioarekin lotu behar da. Armadak eta poliziek zer botere mantendu zuten ikusita, esan daiteke ez zela benetako apurketarik egon eta hori isiltasunerako giltza izan da kasu gehienetan. Honek guztiak agerian uzten ditu Trantsizioaren gabezia demokratikoak. Ez da batere eredugarria izan. Hala eta guztiz ere, gauzak poliki aldatuz joan dira, erakundeak mugitzera bultzatu dituen presio soziala dela medio.

**Ez egia, ez justizia, ezta erreparaziorik ere.**

Hala da. Egiarako eskubideari dagokionez, esan beharra dago historialariok oraindik arazoak ditugula hainbat artxibo kontsultatzeko eta dokumentu batzuk eskuraezinak direla guretzat. Hemen Nafarroan, adibidez, diktadura garaiko kartzeletako dokumentazioa ezin dugu aztertu eta kontzentrazio eremueta zenbait agirirekin berdin gertatzen da.

Ez da bakarrik dokumentazioa. Errepresioaren eszenatokiak izan diren tokiekin ere ez da ia ezer egin duintzeko eta helburu pedagogiko batez erabili ahal izateko. Adibide nabarmenetako bat da Ezkaba mendiko preson-

degia. Eskandalagarria da. Oraindik militarren menpe dago eta oso aukera urriak daude ikusteko sikiera. Hori Paris edo Berlin ondoan balego, nazismoa bukatutakoan, peleginazio tokia bihurtuko zen.

Justizia ere ez da egin. Sufrimendu asko egon zen baina ez dago modurik delitu horiek egin zituztenei ordainarazteko, Amnistia Legeak eta beste lege batzuek zigorgabetasuna bermatu zutelako.

Era berean, neurri gutxi eta berantiar batzuk kenduta, erreparaziorik ez da egin. Eraildakoen gorpuak bilatzeko politika aktiboa abian jarri beharko litzateke, gutxienez, eta estatuan hori ez da egin. 2007ko Memoria Legeak ez du hori bermatzen.

Nazio Batuen Erakundeak egia, justizia eta aitortzaz gain, hori berriro ez gertatzeko bermeak aldarrikatzen ditu eta hemen halako bermerik ez dago.

**Gaur egungo egoera nola ikusten duzu?**

Orain gauzak are larriagoak eta arrakatsuagoak dira duela bizpahiru urte baino. Inpunitatearen kulturak eta frankismoari garrantzirik ez emateko batzuen jarrerak ultraeskuindarren gorakada erraztu dute. Inpunitate juridikoaz gain, inpunitate soziala ere badago. Estatuak berak mantendu du Franco ohorezko tokian duela gutxi arte eta, era berean, frankismoa gorripatzeko ikurrak topatzen ditugu toki askotan.

Ikur batzuk kendu dira, baina beste asko oso agerian daude. Erorien Monumentua aipa daiteke, adibidez, Iruñeko hirigintza osoa baldintzatzen duen eraikin frankista.

**Zer egin beharko litzateke horrekin, zure ustez?**

Nik uste dut gaur egun hiriko hirigintzan duen garrantzia kendu behar zaiola, baina eraikina eraitsi gabe, gero modu pedagogikoan erabili ahal izateko. Kupulan dauden margoek, adibidez, oso ongi erakusten dute kolpismoa eta gurutzada horren espiritua. Guk ere gure gerra santua izan dugu, gure yihad propioa.

**Urte eta erdi eman zenuen kartzelan. Zergatik egin zinen intsumiso?**

Desobediencia olatu bat hasi zen frankismoaren garaian. 80ko hamarkada-

# Fernando Mendiola Gonzalo

**SANTURTZI, 1966**



Historia ikasi zuen Deustun eta Salamancan eta Historia Garaikidean espezializatu zen. Ikasketak amaituta Iruñera joan zen bizitzera. Intsumisoa izategatik urte eta erdi eman zuen espetxean. Historia irakaslea da. 2008ra arte bigarren hezkuntzan aritu zen eta 2016tik aurrera Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Ikasturte honetan NUPen abian jarri den Historiako eta Ondareko Gradu berriko arduraduna da.

*Immigración, familia y empleo: estrategias familiares en los inicios de la industrialización, Pamplona 1890-1930* izenburua duen doktorego tesia egin eta 2002an argitaratu zuen. Edurne Beaumont historialari zaraitzuarrarekin batera 2003an sortu zuen Memoriaren Bideak kolektiboa eta elkarrekin plazaratu zuten *Esclavos del Franquismo en el Pirineo* liburua 2006an.

Memoria Historikoaren Nafarroako Dokumentu Funtz berrituaren zuzendari izendatu dute urte honen hasieran.



ren bukaeran objektzioaren legea martxan jarri nahi zutenean, beste olatu bat sortu zen eta jarraian intsumisioaren mugimendua. Gure adineko askok oso argi genuen armadarekiko eta soldaduskarekiko errefusa. Zerbait egin nahi genuen atsekabe hori erakusteko eta egoera aldarazteko. Kartzela ez da samurra inolaz ere, baina indar kolektiboak ematen zigen adorea borrokan segitzeko. Bagenekien errepresioa zettorrela, baina errepresio hori gure arma bilakatuko zela argi genuenaldi berean.

Desobediencia zibilaren bidea hautatu genuen eta haren abantaila eta aukerak berehala ikusi ziren. Biolentzia politikoak oso presentzia handia zuen garai hartan eta intsumisioak erakutsi zuen beste modu erradikal batzuk eta ez bortitzak bazirela borroka egiteko, arerioa deshumanizatu gabe, arerioaren giza eskubideak zanpatu gabe edo sufrimendu pertsonalik sortu gabe eta horrek indar handia ematen zigen. Desobediencia zibila mantendu egin da ekologismoan, okupazioan, maiatzaren 15ean, Katalunian... borrokarako indarra ematen dizun tresna bat da.

Soldaduskaren bataila irabazi genuen baina aitortu behar da militarismoa bolarik onean dagoela munduan.

### Nolakoa da kartzela barrutik?

Inpunitatearen esparru bat da. Presoen eskubideak sistematikoki zanpatzen dira eta hori ere salatu genuen intsumisiook. Horretan gauzak gutxi aldatu dira eta are gehiago, esan daiteke orain punitibismoa edo zigorraren kultura berriro modan dagoela. Zentzu horretan feminismotik datorkigu orain oso ekarpen interesgarria: nola egin aurre matxismoaren biolentziari uhin punitibistan erori gabe, jakinda kartzela barruan zer dagoen.



### Dokumental bat prestatzen ari zarete. Noiz estreinatuko da?

Udaberri honetan berriak izango ditugu. Honen bidez transmisio lana egin nahi dugu. Belaunaldi gazteei azaldu behar diegu zer izan zen intsumisioa. Alde horretatik, mugimendu honek gabezia handia du eta datozen urteotan proiektu interesgarri batzuk ikusiko ditugu. Lan handia dugu egiteko.

### Nafarroa arragoa, Nafarroa arraroa. Nola da posible horren eskuindar eta horren aurrerakoia aldi berean?

Giltza Frankismoaren bukaeran bilatu behar da, orduan gertatu baitzen aldaketa garrantzitsuena. Gerraren hasieran hemen egon zen ia beste inon ez bezalako mobilizazio handi bat kolpearean alde. Urte batzuk iraganda, aldirik, ikusten dugu Nafarroa dagoela frankismoaren oposizioan mobilizazio gehien egiten den tokien artean. Langile mugimendu indartsua eratu zen eta horrekin batera mugimendu kolektiboek izugarriko indarra hartu zuten:

feminismoa, NATOren erreferendumari emaniko ezezkoa, intsumisioa...

Gizartea oso polarizatua egon zen gatazka armatuaren garaian eta nire ustez argi eta garbi ikusten da hori oztopo bat izan zela martxan zeuden aldaketa horiek azkartzeko. Frankismoaren garaitik zetorren gizarte mugimenduaren indarra izugarria zen eta gaur egun dagoen giro soziala estatuko aurrerakoienetako bat da. Orain aurrekontuak aurrera ateratzeko hitzarmena sinatu da eta hori duela hamar urte pentsaezina zen.

Nafar gizartea oso muturrekoa da, baina azken hamarkada honetan oso uhin aurrerakoia zabaldu da. Gaur egun, baina, beste erronka bat dugu: azken hogeitau urteotan heldu diren etorkinak. Ez dira antolatuta oraindik subjektu sozial edo politiko bezala, baina badugu hori beste erronka bat euskaltzaletasunaren aldetik eta baita ikuspegi ezkeretik ere. Lortu behar dugu gutxiengo indartsu horrek bere eskubideak bermatuta daudela senti dezala. ●

**DATU PERTSONALEN BABESA**  
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzeko lagunduko dizugu

**SIGACUS**

☎ 943 453 588 · [www.sigacus.com](http://www.sigacus.com)

**TRADEBI**  
TRANSLATION

[tradebi@tradebi.com](mailto:tradebi@tradebi.com)

Ogiaren egia

**Galparsoro**  
OKINDEGIA

Ogi biologikoak  
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak  
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074





## Argi-ilunak

**E**spainiako Estatuan eratu berri den koalizio gobernuak aldaketa nabarmenak dakartza bere programa ekonomikoan aurreko legegintzaldiarekin alderatuta. Komunikabide nagusiek politika neoliberalen eta murrizketen garaiak atzean utzi eta programa ekonomiko sozialdemokrata baten aurrean gaudela diote. Ikusteko dago, ordea, aldaketa horiek gauzatzen diren eta, hala balitz, horiek paradigma ekonomiko berri bati ateak zabalduko ote dizkioten. Izan ere, programaren arlo ekonomikoari erreparatuta ereduaren aldaketarako aukerak oso mugatuak direla baieztatzen da.

Pentsioen, menpekotasunaren edo inklusio sozialaren aldeko zehaztasunik gabeko aldarria egin arren, programan bertan kontu publikoen iraunkortasuna bermatzeko zerga disziplinarako mekanismoen betekizuna ziurtatuko dela esaten da. Hots, 2011n erreformatutako Konstituzioaren 135. artikuluko polemikoari men egiten zaio. Bederatzi urte alboratuta egon dena aurten indarrean jarriko da lehen aldiz bere osotasunean eta arlo publikoaren aurrezki oro zor publikoa ordaintzera bideratu behar da lehentasunez. Testuinguru horretan osatu behar dituzte aurtengo aurrekontuak eta, beraz, gastu sozialerako aritmetika. Europako Batzordeko Aurrekontuaren zuzendari nagusia izandako Nadia Calviño presidenteorde ekonomiko izendatu izana egonkortasunari emango zaion lehentasuna berrestera dator.

Espainiako koalizio gobernuaren zerga erreformak aukera interesgarriak aurkezten ditu baina nahiko mugatuak dira gasturako beharren tamainari erantzuteko

Errenta birbanaketarako ekimen interesgarriak aurkezten dira baina, horrenbestez, hezkuntza publikoaren aldeko finantzazioaren helburua (BPGren %5) edo osasun publikoarena (%7) legegintzaldiaren amaieran betetzeko ahalmena oso mugatua egongo da. Antzeko egoeran leudeke pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren alokairuen murrizketaren xedeak.

Europar Batasuneko aurrekontu egonkortasunaren betekizuna malgutzeko aukera urria dela eta, zerga erreformaren bideak erraz lezake ibilbide berrirako asmoen finantzazio gehigarria. Koalizio gobernuaren zerga erreformak aukera interesgarriak aurkezten ditu baina nahiko mugatuak dira gasturako beharren tamainari erantzuteko. Ezin da ahaztu estatuko presio fiskala Europar Batasunaren batez bestekoa baino sei puntu apalago dela



**MIKEL ZURBANO**  
EHU-KO IRAKASLEA


BPGrekiko (Barne Produktu Gordina). Zerga erreformaren lerrorik positiboenaz Sozietateen gaineko Zergan aurre ikusten da, enpresa handiei %15eko eta banketxei zein erregai fosilen inguruko enpresei %18ko zerga tipo minimo efektiboa ezartzeko asmoa baitago. Finantza elkartrukeei ezarriko zaion zerga eta Google tasa (elkartrukeen gaineko %3) eskasak dira baina norabide onean doaz, efektiboak izango badira.

Erregimen komuneko PFEZari (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) dagokionez, aldiz, oso xumea da aurrerapausoa. Errenta altuen bi tarte gehiago ezarriko dira bi eta lau puntu gehigarri eskasarekin eta, okerragoa dena, gobernu autonomoek tartea jaitsi ditzakete hala nahi izan ezker. Ez da ahaleginik egiten ondarearen zerga berreskuratzeko. Eta aberats handiek zerga zamak arintzeko erabiltzen dituzten SICAV edo SOCIMI bezalako mekanismoak mantendu egingo dituzte, nahiz eta tratua ez den horren onuragarria izango. Amaitzeko ikusteko dago zerga iruzurrari aurre egiteko asmoa zertan gauzatzen den, ez baita ezelako mekanismorik ezartzen modu efektiboan hori bideratzeko.

Laneko eskubideen eta pentsio publikoaren arloan bitasun berarekin egiten dugu topo. Asmo eta neurri interesgarriak egon arren, oso motz geratzen dira paradigma ekonomikoaren aldaketa sozialagoaren bidean. ●



# Cony



ANTTON OLARIAGA



**JUNE FERNÁNDEZ**  
KAZETARIA

Oraindik ez du lortu bere hautagaitzaren txostena osorik irakurtzea. Euskal Herriko 30 feministek erantzun dute dokumentu horretan nor den haientzat Concepción Carranza Castro eta zergatik merezi duen 2019ko Berdintasunerako Emakunde Saria. Epaimahaia konbentzitu dute.

Conyri gehiegizkoak iruditu zaizkio botatzen dizkioten loreak: “Isiltasunaren eta prekaritatearen lideresa”, “komunitate feministak ereiten dituen inurria...”. Bere begi bizi-biziak malkoz bete dira elkarrizketa hasi bezain pronto: “Tira, nire buruaren irudi apalagoa dut... Nire lana emakume anonimo askoren ondarea da”. Erantzun diot horregatik ere saritu dutela, umila delako eta kolektibotasunaren alde egiten duelako.

Cony Bizkaiko mugimendu feministako auryepi eta ahots nabarmena da. Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan bozeramailea izan zen eta bere karisma eta umore onarekin Durangon elkartu ziren hiru mila emakumeen euforia piztu zuen. Garaipen eta Munduko Emakumeak kulturarteko talde feministetako militantea da. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan ere buru belarri ibili da. Epaimahaiak ahalduz eskolen bidez emakumeak boteretzeko, kontzientzia-

tzeko eta antolatzeko prozesuak bultzatu izanagatik saritu du, baita emakume etorkin askorentzat erreferente izateagatik ere.

El Salvadorren jaioa, Cony izan da Emakunde Saria jaso duen lehenengo emakume etorkin eta arrazializatua. Onartu dit mugarrak horrek zapore mingotsa ere utzi diola, bere aitortzaren justifikazioan kutsu *buenista* edo onbera somatzen duelako eta bere lanaren ezagutza eskasa. Eragile gehienek nabarmendu dute bere xarma, alaitasuna, epeltasuna, zubiak eraikitze gaitasuna, emakumeak laguntzeko eta sentikortzeko abilezia... “Bale, ados, pertsona ona naiz ni, baina nire izaerari atxikitzen dizkioten ezaugarri horiek nire lan metodologiaren muina dira, eta lan metodologia hori ez dut nik asmatu”. Herri hezitzailea da Cony, hori da bere ekarpen nagusia, alegia Paulo Freireren pedagogia kritikoari lotutako metodologia Euskal Herriko emakumeen ahalduzko prozesuetan aplikatzea. Baina gurean gutxi ezagutzen dute Latinoamerikan hain errotuta dagoen eta zapalduen emantzipazio prozesuen motorea izan den korrante hori.

Ezagutza falta horrek eragin izan du txostenak aipatzen duen Conyren egoera

prekarioa. Emakume etorkinen ibilbidea eta ezagutzak mespretxatzen dituen gizarite honetan, adineko pertsonak zaintzea da bere lan aukera nagusia. Bidegabekeria horren alde positiboa da etxeko langileekin ahalduzko prozesuak bultzatzen dituela, beraien frustrazioak eta amorrua inor baino hobeto ezagutzen ditutela.

“3.000 feminista zuriri esango diegu nola beraiek ere izan daitezkeen zapaltzaileak eta arrazistak (...). Historia egiten ari gara”, idatzi zuen *Raíces* taldeak sare sozialetan; eta horrek Durangon zeresan handia eman zuen dekolonialitatearen mahai-ingurua hasi aurretik. “Arrazista gu?”, pentsatu zuen entzule txuri askok saminduta. Oholtzatik jaitsi bezain pronto erasoak pairatu zituzten hizlariek.

Ikusgaitasuna abiapuntua baino ez da. Mugimendu feministak bere burua antiarrazistatzat izan nahi badu, emakume etorkinen ibilbideak eta ezagutzak aitortu behar ditu, paternalismorik gabe, Hegoaldeko praktika politikoez ikasteko prest egon behar du. “Ikusgaitasun hau aprobetxatu nahi dut herri hezkuntzaren metodologia ezagutzera emateko”, esan dit Conyk. Ea bere ikasbiderako prest gauden. ●

## 2 urte, 4 hilabete eta egun bat



IVÁN GIMÉNEZ  
KAZETARIA

**P**asa den astean, Iruñeko Intsumisioa parketik igarotzen ginela, semeek galdetu zidaten ea zer den hori: Intsumi... zer? 11 eta 9 urte dituztela kontuan hartuta, galdera logikoa da, baina hori bai, nire lehen erantzunaren ondorengo aurpegiak harritzekoak izan ziren: “Ez dugu sinesten, txantxetan zabilta, aita. Nola izan zitekeen zure etxetik behartuta eramatea derrigorrezko soldaduska egitera?”. Orain dela 20 urte normaltzat hartzen genuena, gaur egun sinestezina bihurtu da. *Pezetak* ere ez dituzte ezagutu, baina euroaren aurreko txanpona zer zen ulertzen dute, inolako arazorik gabe. Alabaina, derrigorrezko soldaduska... Hori ez, “ezinezkoa da, aita”.

Ezagutzen dituzten hainbat izen aipatu nizkien eta aho bete hortz geratu ziren. “Horiek intsumisoak ziren? Eta espetxeratu zituzten horregatik? Ez dute ematen, oso *normalak* dira”. Agian, umeez nahi gabe botatzen dituzten erantzunek gure gogoeta sakonek baino askoz hobeto azaltzen dituzte munduko aldaketen gakoak. Bai, “normalak” ziren, ez ziren heroiak, baina euren gaztetasuna arriskuan jarri zuten, beste guztiok –gure semeak eta bilobak barne– derrigorrezko soldaduska ez pairatzeko. “Ezkerrekoak ginen, abertzaleak baina ez ETaren aldekoak. Oso politizatuta geunden –gogoratzen du Juan Kruz La-

kastak– eta gure erradikaltasunak helburu bat behar zuen. Intsumisioa topatu genuen; gure hautaketa eginda zegoen”.

Esaldi hau eta pasadizo zein bizipen asko agertzen dira udaberrian estreinatuko den *2 urte, 4 hilabete eta egun bat* izeneko dokumentalean, Lander Garrok zuzendurikoa. “Oso dokumental intsumisioa da, solemnitaterik gabekoa. Beraz, tonua aurkitzeko euren etxera jo dut, Sanferminetan grabatu dut...”. Gazte “normal” batzuen istorioa da, kuadrilla berekoak, 1989an Iruñeko Gobernu Militararen aurrean hasi zena: “Soldaduskara joateko jaso genuen gutuna ekitaldi publiko batean apurtzea deliberatu genuen, eta 12 urte geroago soldaduska desagertu zen”, laburbiltzen du Lakastak. Baina esaldi horiek ez dira nahikoak, hori gehiegi laburtzea da, eta agian horregatik dokumentala ikusteko beharrean gaude denok. Intsumiso askok 2 urte, 4 hilabete eta egun bat espetxean eman zuten, horietako batzuk bidean geratu ziren, baina lortu zuten garaipena ez zuten orduan behar bezala ospatu. “Agian, euskaldunok galtzeko ohitura daukagulako”, aitortzen du Gaizka Arangurennek, garaiko beste intsumiso bat eta dokumentalaren protagonistetakoa. “Garaipenak, partzialak badira ere, ospatu behar dira”.

Hala bedi, 20 urte beranduago bada ere. ●

## 30 urte



LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI  
IRAKASLEA

**G**abon ostean 30 urte bete ditut beharrean. 30, nahiz prekarietatearen ondorioz, askoz gutxiago kotizatu ditudan, ia beti lanean ibilita ere.

Hiru hamarkada ofiziorik ederrenetakoan, irakaskuntzan, euskara irakasten helduei euskaltegietan. Zenbat desafio, eta zenbat haserre, zelan ez, ba. Azterketekin borrokan, titulitisaren zama arindu nahian. Sarri gizartearen oldearen kontra, baita instituzio batzuen aurka ere.

Zelan aldatu den guztia sei lustrootan. Hasi nintzenean, aldizkari hau, ARGIA, baino ez zen existitzen. Ez egunkari, ez herri aldizkaririk. Internet existitu ere

ez zen egiten. Liburu gutxi eta gaitzak ikasleendako. Hori bai, ETB1en serie eta filmak ematen zituzten. Gizartea eta ikasleak ere aldatu dira, orain jolasean kale.

Zenbat ikasi dudana, eta ikasten dudana eguneroko. Batez ere ikasleengandik eta ikasleekin. Euskararen ere ikaragarri sakonduta, gaztelanian ere bai, kontraesan iruditu arren.

Baina helburua litzateke gure ogibide hau, ederrena bada ere, betiko desgertzea, beharrezkoa ez delako izango, Euskal Herria zeharo euskalduna izango delako.

Beste 30 urte beharko ote? ●



# Hara España, lur hoberikan!



JOSE IGNAZIO ANSORENA  
TXISTULARIA

**A**buztuan berrehun urte izango dira Jose Mari Iparragirre, lehen euskal kantautorea jaio zenetik. *Hara non diran* abestiaren lerroaren kontura zenbat eztabaida txotxolo:

*Hendaian nago txoraturikan  
zabal-zabalik begiak.  
Hara España, lur hoberikan  
ez da Europa guzian...*

Iparragirrek, ez ezpaina eta ez gaztaina, *España* kantatu nahi zuen. Hitzak ez zion aho patsik uzten egungo euskaldun askori bezala. Oso esanahi desberdinak zituelako Iparragirreraren garaietan eta guretan.

\* \* \*

*España*-k ez zion ezpaina mingosten Gregorio Ordóñezi. ETAK hil zuenetik 25 urte igaro diren honetan, Donostiako Udalak hil zuten leku berean omenaldia antolatu eta han ginen txistulariak. Orduan ezarritako oroimen xafla laidotu duten kirtenei kaskoan sartzea kostako bada ere, Ordóñez en edo inguru horretako inoren omenaldian negarrak eta saminak benetakoak dira. Beste aldeko biktimen kasuan ere berdintsu. Alde guztietakoetan izan naiz eta ziurta dezaket.

Gregorio Ordóñez en edo inguru horretako inoren omenaldian negarrak eta saminak benetakoak dira. Beste aldeko biktimen kasuan ere berdintsu. Alde guztietakoetan izan naiz eta ziurta dezaket

Donostian biolentziak sortutako biktima guztiei antzekoa egitekotan dira. Gutxi batzuri eskaini zaie jada, baina oraindik ehundik gora daude burutzeko. Badugu lana. Ekitaldietan eta memoria ongi orrazten ere bai. Biktima nagusiak hildakoak, zauritutakoak eta hauen gertukoak izan arren, beste asko ere biktima gara, biolentzia gerra, tiroak, torturak eta lehergailuak baino askozaz gehiago izan zelako. Eta barruko zauriak askok ditugulako.

\* \* \*

Euskara bera ere biktima da oraindik. Egun kontu askoren inguruan ederki

jardun daiteke euskaraz. Kazetaritzan, Literaturan, Itzulpengintzan, Teknikan eta Teknologian... Baina mamian oraindik katramilatuta gaude kontu zaharrek. Lokarri itogarri inplizito ugari deuseztatu behar genituzke euskarazko pentsamendua libre hegal dadin. Ezin kendurik gabiltza aspalditxotik gogoan tratatuta ditugun hari ikustezinak. Zailenak.

Nafarroako eskuinak duen birus (euskara ultraezker abertzalearen mozorroa besterik ez dela sinestuta baitaude) antieuskaltzalearen aurkakoak ez al gaitu euskaltzaleok kutsatu? Aurrerazaleenak, sozialistenak, ekologistenak, feministenak, alternatiboenak, agnostikoenak... agertu behar omen dugu. Itxuraz noski. *Trintxera infinitoan* jarraitzeko bide segurua. Gure kapsulan. Baina gizarte osoari hedatzeko kapsularen tapakia urratu behar. Nondik hasi? Umeetako borroketan bezala? *Hasi hi!* Eta bestea: *Heu hasi!*

Argia egin behar digu ARGIA astekariak eta berritzen lagundu *Berria* egunkariak. Entzun dezagun ongi Iparragirrerentzako kanta: *Eman ta zabal zazu munduan fruitua.* ●





# Epaileak Lander Arbelaitz kazetariaren aurkako auzia artxibatu du

BAINA  
ERTZAINEK  
ERREKURRITU  
EGIN DUTE

Epailearen arabera "ez dago nahiko zantzurik adierazten duenik argitalpen hori agentea iraintzeko intentzioarekin egin zenik" eta ARGIAko kazetariak zabaldu zuen informazioa adierazpen askatasunaren eremuan kokatu du. Ertzainek borroka epaitegietan luzatzearen alde egin dute.

 ARGIA  DANI BLANCO



**2**018ko maiatzaren 21 arratsaldean gertatu zen Donostiako Elkano kalean ertzainen eta herritarren arteko eztabaida, eta ertzainak hainbat herritar identifikatuz amaitu zen egun horretakoa: identifikazio horren ondorioz Mozal Legeaz isuna jarri zioten Eneka Alvarez euskaltzaleari. Bertatik Lander Arbelaitz ARGIAko kazetariak informatu zuenez (eta bertan ziren herritarrek ere horrela adierazi zuten), hizkuntza eskubideen urraketa bat izan zen identifikazioaren iturria.

22.125 eta 23.044 zenbakidun ertzainek salaketa jarri zuten kazetariaren aurka, "iraintzea" leporatuz. Bi ertzainen arabera, albiste "faltsu" hori sare sozialetan zabaldu izanak haien irudia kaltetu du eta bizitza pertsonalean ere izan du eragina. 2019ko martxoaren 20an Donostiako auzitegian ertzainek adierazi zutenaren arabera, "inor ez zen identifikatu euskaraz hitz egiteagatik, baizik, jakinarazi gabeko elkarretaratzea egiteagatik".

Donostiako Zigor Arloko Instrukzioko 2. epaitegiko epaileak urtarrilaren 21ean jakinarazitako autoan, arrazoi hauek eman ditu auzia behin-behinean eteteko: "Ez dago nahiko zantzurik adierazten duenik argitalpen hori agentea iraintzeko intentzioarekin egin zenik". Aurrerago gehitzen du: "Argitalpen hau Espainiako Konstituzioko 20. artikuluko babestuta dago, adierazpen askatasun moduan, ikertuak egin duena gertatutakoari buruzko informazioa ematea izan delako, bere bertsioa emanaz eta gertatutakoa bertan zeuden pertsonen eskubide urraketa moduan baloratuz". Ertzainek beren bertsioa zabaltzeko aukera badutela ere iradokitzen du autoak: "Iritzten badiote hedatutako informazioa ez datorrela bat errealitatearekin, berau zuzentzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, bien eskubideak kaltetu gabe".

### "AHOZKO EPAIKETA INJUSTU"-RA BIDEAN EUSKALGINTZA, BEHATOKIA ETA ERTZAINTZA BERA AIPAGAI

Epaileak autoaren zuzenbide-oinarrietan dio injustua dela pertsona bat ahozko epaiketara eramatea, "ebidentziak dardenean penalki ez duela erantzukizunik". Ertzainek, ordea, bi errekurtsio jarri dituzte auzia eteteko epailearen erabakiaren aurka: erreforma-errekurtsioa eta subsidariarioki apelazio-errekurtsioa.

Emma Guerrero Azañedo da 22125 ertzainaren prokuradorea eta Jorge Francisco Arana de la Cal abokatua. Ur-



**2018KO MAIATZAREN 21EAN**, ertzainak Eneka Alvarezi identifikatzeko eskatzen. Bertan zeuden herritarrek eta Lander Arbelaitz ARGIAko kazetariak adierazi zuten hizkuntza eskubideen urraketa izan zela identifikazioaren iturria.

tarrilaren 24an bi hauek sinatuta sartu duten errekurtsioan, besteak beste arrazoi hauek ematen dituzte auziari berrekiteteko:

"Informazio faltsuak zuzentzeko eskubidea, autoak aipatzen duena, iragan mendeko komunikazio moduetarako aurreikusia eta araututa dagoen figura bat da eta egun ez da funtzionala, ez behintzat sare sozialek eskaintzen dituzten erremintekin egindako argitalpenen kasuan, hauetan ez baita ezagutzen argitalpenaren editorea/arduraduna, ezta argitaletxearen egoitza ere".

"Ertzainei egotzi zaizkienak larriak izan dira, horren ondorioz jasan behar izan duten gaitzespen kolektiboagatik. Bideoak, eta ikertutakoaren komentarioek, milaka ikustaldi izan zituzten eta albo-rotua sortu zuen pertsona eta erakundeen euskaltzaleetan. Horrek denak ekarri zuten Hizkuntz-Eskubideen Behatokiak salaketa/kexa aurkeztea Jaurlaritzako Segurtasun Sailean. Honek erantzun egin zuen inplikaturako agenteak entzun gabe, eta hauek kaltetuta ikusi zuten beraien ospea eta honek ondorioak ekarri zizkien familia giroan eta eremu profesionalean, espediente diziplinario bat jasotzeko arriskua ere izan baitzuten".

Adierazpen askatasunari dagokionean, ertzainen errekurtsioak dio Espainiako Konstituzioak ez duela babesten egiazkotasuna gutxietsiz jokatzeko duena. Ertzain-

nen arabera, kazetariak ez zituen egiazkotasunak eskatzen dituen baldintzak bete, haien ustez ez zuelako "informazioa kontrastatu" argitaratu aurretik. "Informazioa kontrastatzea"ri dagokionez, Arbelaitzek sareetan zabaldu zuen bideoa ikusgai dago argia.eus webgunean, irakurtzen ari zaren albiste honetan bertan, eta bideoa ikusita arreta deitzen du nola justu bideoa grabatzen ari zen bitartean Arbelaitz kazetariak galdetzen dien ertzainei, hauek herritarrari identifikatzeko eskatzen dioten momentuan bertan: "Euskaraz hitz egiteagatik nortasun agiria?" eta hiru aldiz egiten die galdera.

### AHOZKO EPAIKETA ABIATZEKO ESKATU DUTE ERTZAINEK

Erreforma-errekurtsioaren bidez eskatu diote Instrukzioko epaitegiari auzia etetea erabaki duen autoa bertan behe-erantzuteko, eta ahozko epaiketari bidea emateko. Instrukzioko epaitegiak erreforma-errekurtsioa atzera botako balu, Gipuzkoako Probintzia Auzitegian apelazio-errekurtsioa abiatu dute. Beraz, hizkuntza eskubideekin eta adierazpen askatasunarekin lotutako auzi honek epaitegietan egingo duen bidea luzatu egingo da, Instrukzio epaitegiak auzia etetea berretsiko balu ere, Gipuzkoako Auzitegiko epaile batek berriz baloratu beharko lukeelako delitu zantzurik dagoen edo ez. ●





## Gu ere ez gara espaloitik jaitsiko

# UTZI ARGIA BAKEAN

**E**paitegira eraman nahi dutena informatzeko eskubidea da, esan genuen duela urtebete. Orain epaile batek berretsi du. ARGIAko Lander Arbelaiz kazetariak 2018ko maiatzean bi ertzainen jarreraren inguruan zabalduko informazioa adierazpen askatasunaren eremuan kokatu du epaileak. Areago, ertzainei gogorazi die, kazetariak orduan gertatutakoaz bere bertsioa eman zuen bezalaxe, haiek ere hori bera egiteko aukera dutela, bide penaletik jo gabe, espetxe zigorrik eskatu gabe.

Arbelaiztek sareratutako bideoa milaka aldiz ikusi da eta bertan oso argi islatuta dago gertatu zena. Eta hala ulertu dute, epaileak ez ezik, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, 400dik gora kazetarik, euskaltzalek, hedabidek eta eragilek. Baita Ertzaintzaren goi karguek ere, publikoki barkamena eskatu zutenean. Baina ez. 22.125 eta 23.044 ertzainek jarraitzen dute zigorra eskatzen.

Bi ertzain hauei ez zaie gustatu hizkuntz eskubideen urraketa baten aurrean hainbat lagun isilik geratu ez izana: euskaraz hitz egiteko eskaerari eutsi zion Eneka Alvarez, Poliziaren jarduna espazio publikoan grabatzeko eskubideari eutsi zion ARGIAko kazetaria eta hauen babesean agertu diren euskaltzale eta eskubide zibil eta politikoen aldeko ekintzaile andana. Ahaztu zaie nonbait, herritarren zerbitzura eta ordainpean dagoela Polizia, eta herritarren kritika publikoak jasotzea polizien lanaren barruan dagoela, zenbait epaik ebatzi duten gisara.

Eta, berriz diogu, ez gara esaten nekatuko: Polizia grabatzen jarraitu behar dugu. Gardentasun ariketa izateaz gain, gero eta argiagoa delako askotan herritarrok gure burua babesteko dugun bide bakarra dela. Ala, norbaitek uste ote du bada, bideorik grabatu eta zabaldu ez bagenu, epaiketara eramango gintuztenik? Polizia batzuek

ez dute haren lanaren ispilurik nahi, Mozal Legearen ikuspegi zigortzailearen epelean erosoago bizi dira.

### **ERTZAINZA EUSKALDUNON POLIZIA?**

22.125 eta 23.044 ertzainek ARGIAri kontraste eza leporatu diote. Mozal Legea baliatuz, epaileen inolako kontrasterik gabe eta haien hitza zigortzeko argudio bakar bilakatuta, euskaraz artatua izatea eskatu zuen Eneka Alvarez isuna jarri zioten ertzain berek.

Galdera da, zertarako erakundeek eskatu herritarrei *Ahobizi* izateko ahalegina egitea? Ondoren, herritarren oinarritzko eskubideak babesteko ardura publikoa dutenak baldin badira eskubideak urratzen dituztenak, berriki Durangon bezala? Eta batzuetan jarrera euskarafoboa agertuz gainera, azken egunetan Galdakaoko Beñat Armentiarren kasuan ikusi dugunez.

Ertzainek euskara jakin behar dute. Ertzainek hizkuntza eskubideak bermatu behar dituzte. Kanean, ertzain etxean eta epaitegietan. Haien ardura da. Lehen mailako eta bigarren mailako pertsonarik ez badugu nahi, behintzat. Aitzitik, lehen hitza erdaraz zuzentzen duten ertzainik ez dugu behar. Eta edozein ardura publikotik kanpo beharko luke euskaraz artatua izateko eskaerari mehatxuka erantzuten dion funtzionario orok.

Beste garai bati dagokion polizia eredu erdaldun eta erdaltzale, bertikal, sasi-militar, zigorzale eta opaku hau ez du inork aukeratu. Aldatu beharra dago eta bada garaia herritarrok gai honi buruz hitza eta erabakia izateko.

Injustiziez zerbait badakigu bazterrotan. Elkar babesten jarraituko dugu. Kazetari-tza independentea, adierazpen askatasuna eta hizkuntz eskubideak ditugu bide-lagun. Eta haien defentsan, ondo baino hobeto dakigu espaloitik ez jaitea dela justizia egiteko bide zuzena.




ESPETXEA ETA HERIOTZA

# PRESOEN OSASUNA, BAZTER UTZITAKO ESKUBIDE HORI

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA







**Eskutik doaz espetxea eta heriotza. Hango eta hemengo kartzeletan hildako pertsonen zifrak behatu besterik ez dago murru artean heriotza zeinen presente dagoen antzemateko. Instituzioak kustuaripean diren norbanakoen birgizarteratzea eginkizun duela esanagatik ere, espetxe baldintzek suntsitzaitetik integratzaitetik baino gehiago dutela, ez da gauza berria. Baldintzok preso dauden norbanakoen osotasuna degradatu egiten dute, espetxe barruko heriotza tasa altua izanik horren muturreko adierazle. Iazko urtean distantzian gertu jo du alerta errealtate horrek: Zaballako makro-kartzelan bost preso hil dira 2019an, eta seigarren bat Martutenen.**

**2**019 urte hastapenetatik martxa hartuta ibili da espetxeko heriotzen markatzailea, urtarrilak 17 zituela heldu baitzen Zaballako makro-kartzelatik berri iluna: 28 urteko J.A. bizkaitararen hilotza aurkitu zuten bere ziegan; heriotzaren kausa gaindosia omen. Atzetik etorri ziren antzerako kasu gehiagoren berriak espetxe beretik: otsailen bigarren preso bat zendu zen, isolamenduan zela bere buruaz beste egin ostean, Espainiako Espetxe Erakundeetako langileen elkartearen arabera; apirilaren 1ean Jonathan Costillas Rituerto, 24 urteko gasteiztarra, bere ziegan urkatuta aurkitu zuten; 28 urteko Xabier Gonzalez Garcíaren heriotza izan zen hurrena, apirilaren 25ean, ustez gaindosiz; eta irailaren 21ean, A.F.N. 50 urteko donostiarra hil zen, hau ere, ustez, gaindosiz. Urtea bukatu aurretik, Arabako espetxeak utzitako zifra beltza gizendu zuen Martuteneko espetxean jazotako beste preso baten heriotzak, abenduaren 20an; heriotza naturala izan zela esan

zuen funtzionario talde batek. Azken espetxe horretatik heldu zaigu 2020an Euskal Herrian hildako lehen presoaren berri, urtarrilaren 13an aurkitu baitzuten 41 urteko preso hilik, gaindosiz, funtzionarioen arabera.

“Ez dakigu zehazki zeri dagokion heriotza kantitate altu hori, baina badakigu kartzelak ez duela ezer egin ekiditeko eta ez dagoela bermerik berriz halakorik gerta ez dadin. Kartzelak opaku izaten jarraitzen du”, egin du irakurketa Zaballako bost heriotzez Salhaketa Arabako Maialen Martinez de Marigortak. Espetxe barruan gertatzen dena jakitea eta kustuaripeko heriotzen gaineko informazioa eskuratzea oztopatzen duen opakutasunaz ari da, Salhaketak iazko urtean behin baino gehiagotan seinalatu duena, hala-beharrez. Zaballan laugarren preso hil berritan espetxeko heriotzen “ezkutatzeko politika sistematikoa” salatu zuen elkarrekin, “barrote arteko heriotza ez-naturalen aurrean eraturako inpunitate estrategiaren parte den” politika, alegia.



Salhaketa Arabako abokatuaren azalpenen arabera, preso bat hiltzen denean, heriotzaren zergatiak argitzeko prozedura abiatzen du epaitegiak. Alabaina, “espetxeak ez du jarrera aktiboa izaten gertakariak argitzeko prozesuan, ezta ere Fiskaltzak; presoaren familiak, ez bada abokatuarekin eta prokuradorearekin prozesuan aurkezten, ez du izango autopsia informea besterik”. Zendutakoaren familiari telefono bidez heriotzaren berri ematera mugatzen da espetxea, “familiak hartu ditzaken legezko akzioak aipatu eta azaldu gabe”. Gardentasun falta horrek, besteak beste, zaildu egiten du heriotza horien gainekoak argitzea, sarri heriotzaren kausa zein izan den egiaztatzea eragozteraino. Horren muturreko adibide dugu Zaballan hildako Xabier González Garcíaren heriotza; espetxeak gaindosiz hil zela jakinarazi zuen, baina lehen autopsiaren emaitzak jaso aurretik gorpua erraustera bideratu izanak, bigarren autopsia baterako aukera hutsera bihurtu eta heriotzaren zergatiak argitzea eragotzi zien senideei. Gazteari eginiko autopsiaren aurrrerakinean drogei buruzko aipamenik ez zen azaltzen, eta heriotzaren kausa beste bat izan zitekeela pentsatzeko motiboak baziren. Espetxearen prozedurak, baina, argiari sarrera blokatu zion beste behin.

### HERIOTZAK, ICEBERGAREN PUNTA

Kanpotik ikusezina den horma arteko errealtate horren adierazpide muturrekoenak ditugu presoan heriotzak. Iazko datu ofizialik oraindik ez dagoen arren, Espainiako Espetxe Erakundeetako langileen elkarteak emandako informazioaren arabera, 2018ko abenduaren lehene-tik 2019ko abenduaren azkenera bitarte 178 preso zendu ziren Espainiako Estatuko Kartzeletan; datuok ez dituzte barne biltzen Kataluniako espetxeetan jazotako presoan heriotzak, horien konpetentziak Generalitateak baititu, baina bertako datuak gehituz gero 198ra igotzen da hildakoen kopurua. Urtez urte, gorabeherak gorabehera, altu mantentzen den zifra batez ari gara: Espainiako Barne Ministerioaren arabera, 2017an 147 preso hil ziren Espainiako Idazkaritza Nagusiaren mendeko espetxeetan; 2018an, berriz, 210 –zifra horiek ez dituzte barne biltzen baimenarekin espetxetik kanpo zirela hildako presoak, ezta “parekagarriak diren egoeretan” hildakoak ere; 20na pertsona aipatu urte bakoitzeko–. Datu horiei Kataluniakoak gehituz gero, 246

lirateke 2018an hildako presoak Espainiako Estatuan, eta 2019an zendutakoak 188. Frantziako Estatuari dagokionean, 2017koak ditugu Espetxeen Nazioarteko Behatokiaren Frantziako sailak publiko egindako datuak: 162 presoan heriotza zenbatu zituen urte horretan.

Heriotza bat bi egunean behin, hiru asteko. Espainiako Estatuan maiztasun horrekin hiltzen dira presoak, espetxeei begira lan egiten duten hainbat eragile eta adituk etengabe azpimarratzen dutenez –datu hori puztu egingo litzateke kontuan hartuz gero hiltzear daudela aske utzitako presoak, salatu izan dutenez murrerako heriotza kopurua jaisteko espetxeak darabilen estrategia baita–. Heriotzen kausa nagusiak mantendu egiten dira urtetik urtera: suizidioak, gaindosiak eta “heriotza naturala”

## Jendartean ematen diren suizidio kasuen boskoitza jazotzen da espetxean; eta zifra hori hiru aldiz handiagoa da isolamendu erregimenean: kalean baino hamabi aldiz handiagoa

izendatutakoak. Suizidioei dagokienez, jendartean ematen diren kasuen boskoitza jazotzen da espetxean; eta zifra hori hiru aldiz handiagoa da isolamendu erregimenean: kalean baino hamabi aldiz handiagoa. Europako Kontseiluaren azken espetxe estatistikaren (SPACE) arabera, Espainiako zein Frantziako espetxeetan ematen den suizidio kopuruak Europako media gainditzen du. Gai-dosieei begiratu gero, horietako asko presoek astebururako medikazio guztia kolpean kontsumitu ostean gertatu ohi dira. Heriotza natural izendatutakoen atzean, berriz, gaizki artatutako osasun arazoak eta gaixotasunak gordetzen dira maiz. Horren adibide, askatasuna ukatuta duten pertsonen osasun eskubideen aldeko Osabideak elkarteak Nahia Aia medikuak *Públicori* adierazitakoa: ustez bihotzkoak jota hildako preso baten familiak laguntza eskatu zien, eta kasua aztertzean jakin zuten diagnostikatu eta

tratatu gabeko bihotzeko batek eragindako bihotz-hausketa baten ondorioz hil zela; bihotzkoak eman zionean antsietatea diagnostikatu zioten, eta trankilmazina batekin arazoa konpontuzat eman. Informazio faltan, baina, antzerako prozedura okerrak identifikatzea zaila da. “Arreta eza ezkutuan geratzen da beti”, Aiaren hitzetan.

Naturalizatutako heriotza horien artean gaixotasunek eragindakoak dira beste asko, nahiz eta ez lukeen hala izan behar. Espainiako Zigor Kodeko 91. artikulua eta Espetxeen Erregelamenduko 196. artikulua baldintzapeko askatasun eskubidea ezartzen dute larriak edo osatu ezinezkoak diren gaixotasunak dituzten presoentzako, edo hirugarren gradura igoatzea Espetxeen Erregelamenduko 104.4 artikulua arabera. Legea betetzeak osasun arreta hobea erraztuko lioke larriki gaixo den presoari, baina hainbat kasutan espetxeak oztopoak jartzen ditu hala izan dadin. Preso politikoaren artean maiz ematen den egoera da: gaixotasun larrien sorburu dira espetxe zigor luzeak eta denbora horretan guztian pairatutako osasun arreta gabeziak; eta gainera “preso mota honentzako *ad hoc* asmatutako baldintza berriak txertatu dituzte Kode Penalean, non preso gaixo larrien irtetea damu politikoarekin eta poliziarekiko kolaborazioarekin lotzen den”, euskal preso politikoei begira lan egiten duen medikuen Jaiki Hadi elkartearen hitzetan. Osasun irizpideei beste irizpide batzuk gainjartzen zaizkie, alegia. Horren albo kalteek, esan beharrik ez da, presoaren osasuna dute jopuntu.

Heriotza naturala terminoari “falazia” deritzo Salhaketa Arabako Martinez de Marigortak, “naturalak ez diren heriotzak naturalizatzeke eta kartzelako testuingurua kaltegarria ez balitz bezala aurkezteko saiakera”. Ildo berean mintzo zen abenduan Salhaketa Nafarroa, iaz Espainiako Estatuako espetxeetan hildako preso kopuruaren harira publiko egindako idatzian. *Espetxeak ez luke izan behar heriotza kondena* artikuluan “heriotza naturala” terminoa ezabatzea ezinbestekotzat jo zuen elkarteak, ondokoa argudiatuz: “Nahiz eta kontzeptu medikoa izan, kasu hauetan leungarria da bere erabilera, eta batez ere, arazoaren dimentsioa ezkutatzeko duen tranpa da”. Elkarteak defendatzen duenez “naturalizat” jotako espetxeko heriotzen kopuru handi bat gaixotasunen baten zein “oinarrizko eta ezinbesteko” osa-





HALA BEI

sun arretaren utzikeriaren ondorioz gertatzen da, ez bat-batean. “Espetxean jazotzen diren heriotza asko itxialdi baldintzek maila fisiko zein psikologikoan osasunean eragiten duten eraginaren ondorio zuzena dira. Beste era batera esanda: espetxeak gaixotu egiten du, itxialdi baldintzek hil egiten dute”, azpimarratu du Salhaketa Nafarroak.

Salhaketa Arabakoak Nafarroako kideen uste berekoak dira. Halaxe dio Martinez de Marigortak: “Kartzela da kartzela barruan ematen diren heriotzen kausa. Aurten Zaballan hildako bost presoetatik lauk 30 urtetik behera zuten, heriotza horiek ez dira naturalak eta testuinguru horretan ulertu daitezke bakarrik. Kartzelako heriotzek ere egiturazko logika bati erantzuten diete”. Elkarteak azpimarratu izan duenez, heriotza horiek arreta psikosozial faltaren icerbegaren punta dira.

### EGITURAZKO ARAZOA

Saihestezinak izatetik urruti, espetxe barruko heriotza asko eta asko ekidin daitezkeela azpimarratu ohi dute aipatu elkarteek. Egiteko horretan, baina, espetxearen egitura bera da oztopo. Batetik, espetxeen egoera dago: 2018ko SPACE

txostenaren arabera, Espainiako Estatu-ko espetxeratze-tasak Europako media gainditzen du, eta horrek espetxeen saturazioa erraztu dezake. Espetxeko Idazkaritza Nagusiaren 2018ko *Giltzapetutako biztanleria Espainian* txostenak 321 preso zenbatzen zituen Bizkaian, 292 Gipuzkoan, 308 Nafarroan eta 701 Araban; Frantziako Estatuaren espetxeratze-tasa, aldiz, Europako mediaren bueltan dabil SPACE txostenak dioenez, baina horrek ez du saturazioa ekiditen nahitaez: Baionako espetxeak emandako datuen arabera, 2019ko urtarrilean 104 pertsona zituen 66 ziegatan. “Saturazioari preso askoren egoera gehitzen badiogu –droga-menpekotasunak, miseria, bazterketa, desesperazioa, etab.– haztegi perfektua dugu zorigaiztoko ondorioa gerta dadin”, ohartarazten zuen Madrilgo Errepresioaren Aurkako Mugimenduak idatzi batean.

Heriotza haztegi horretan ongarri da espazioaren egitura. *Espetxea eta Osasuna* txostenean egitura horrek osasuna nola kaltetzen duen azaldu du Jaiki Haidik. Kartzela espazio fisiko itxia, mugatua eta murrizta izanik, erabat eragiten du presoaren zentzumenetan. Batetik, “espetxeko itsumen” delakoa eragiten du: eremu oro mugatua egonik, preso-

ren ikus-distantziak urriak bilakatzen dira, eta horrek ikusmen galera dakar. “Buruko minak eta ikusmen somaketaren deformazioa eragin ditzake, itxura eta koloreen pertzepzioa galtzeraino”, elkartearen hitzetan. Ikusmenaren bide beretik, usaimenak ere galerak pairatzen ditu: aireratze eta bentilazio eskasaren ondorioz espetxeak berezko usaina izan ohi du, usain hori gailenduz beste guztien artean eta “usaimen pobrezia” eraginez presoarengan. Entzumena, kontrara, murriztu ordez saturatu egiten da, espazio itxian zarata maila ohi baino altuagoa bilakatzen baita; egunez burrunba aditzen egotetik gaueko isiltasunera igarotzeak alerta egoera sor dezake, antsietate arazoak izateko aukerak puztuz. Bestetik, espazioarekin batera mugikortasuna ere mugatzen da, arazo traumatologikoei bide emanez. Horrekin guztiarekin batera, uda zein negu izan, hotz zein bero egin, presoak euritarako zein eguzkitarako babesik ez duten patioetan egon behar dute “kanpora” atera nahi izatera, eta horrek azal gaixotasunak sortzen ditu. Elikadura nutrizionalki desegoki eta desorekatuak ez du aurreko guztia- ren mesedetan jokatzeko.

Maila fisikoaz haragoko mugak ere xedatzen ditu espetze arautegiak, presoari exijitzen diotenak bere "izaera eta egitura mentala espetxeko espazio hertsira egokitzea". Batetik, espetxeak zehaztutako denboraren erabilera inposatzen da, norbanakoei denbora beren erara kudeatzea ukatuz. Bestetik, kanpotik datorren oro –izan bisita zein korrespondentzia- instituzioaren galbahetik igaroko da, kanpoko errealitatearekin eta harremanekin dituen loturak desitxuratu presoaren begietara. Funtsean, espetxera sartzearekin bat, presoak egokitzapen prozesu bati aurre egin behar dio, testuinguru eta arau berrietara egokitzeko. "Egokitzapen prozesu hau norberaren gaitasun eta trebetasunetan oinarritzen da; baina gaitasun horiek


huts egiten dutenean, prozesua traumatikoa eta patologikoa bihurtzen da", dio Jaiki Hadik. Ondorioztatu daitekeenez, behin traumari edo patologiarri atea irekita, laburtu egiten da heriorengandik distantzia.

Kartzela barruko kartzela bezala irudikatu dezakegun isolamendu erregimeanean, aipatu albo-kalteak esponentzialki indartzen dira. Eta horrek, nabarmena denez, arrisku faktoreak izugarri igotzen ditu. Egoera horien guztien aurrean, presoaren familiak beren senidea gaizki pasatzen ari dela ikusiz gero, kartzelari horren berri emateko bitarteko eta baliabiderik ez dagoela azpimarratu du Martínez de Marigortak.

Zuzenbide penalean doktorea den Paz Francés Lekunberri ahoan bilorik

gabe mintzo zen *El Salto* bidez argitaratutako artikulu batean: "Espetxeak, ezer ez konpontzeaz gain, giltzaperatzen dituen pertsonen aurka atentatzen duten prozesuei ematen die bide, zenbait alditan –askotan–, horiek hiltzen amaituz". Espetxeetan bizitza gutxien duten dinamika existitzen direla zioen, umiliazio etengabeak tarteko "pertsonaren suntsipen prozesuak" bultzatzen dituztenak. Horrez gain, askatasun gabetze zigorak askatasuna ez ezik beste hainbat eskubide hertsatzen dituela gehitzen zuen; horien artean legoke osasun eskubidea. Presoaren bizitza mesprezatzen duten dinamika eta osasun eskubidearen ukapenak, bakoitzak bere aldetik kalte larriak eragin baditzakete, zer esanik ez elkarrekin nahasten direnean.

## Espainiako Estatuko espetxeetan urtez urte hildako preso kopurua



\*2019ko datuak Espainiako Espetze Erakundeetako Langileen Elkarteak emandako informazioarekin osatu dira. Espainiako Barne Ministerioaren iazko datu ofizialik ez da existitzen oraindik, eta heriotza askoren kausak argitzeke daude momentuz, hortik "ezezagunak / kalifikatu gabekoak" azpitaldean hainbat heriotza kokatzearen zergatia. Horietako asko eta asko "gaindosi posible" gisa daude etiketatuta, eta beste hainbatetan uestezko osasun arazoekin lotura egiten da.

ITURRIAK: *Directa* / Kataluniako Justizia Saila / Espainiako Barne Ministerioa / Espainiako Espetze Erakundeetako Langileen Elkarte GAIZKA PAGONABARRAGAK *DIRECTARAKO* EGINDAKO INFOGRAFIA OINARRI HARTUTA.

- Suizidioak
- Gaindosiak
- GIB / Ihesa
- Bestelako gaixotasunak edo "heriotza naturalak"
- Agresioak
- Istripuak
- Ezezagunak / kalifikatu gabekoak



## OSASUN ESKUBIDEA

“Izan gaitezen zintzoak errealitate horren aurrean eta egin gaitezen berorren kargu, espetxea ere Administrazio Publikoa baita (...) exijitu diezaiogun Espetxe Administrazioari beste administrazio publiko guztiei eskatzen diegun berbera”, dio Francéssek. Mintzagai dugun problematikaren urgentzia ikusirik, eskakizun printzipalen artean behar luke presoen osasun eskubidea errespetatzeak.

Berez, preso dauden pertsonen askatasuna ukatua ez dutenen osasun eskubide bera daukate. Hala dio Espetxeen Erregelamenduko 208.1 artikulua: “Preso guztiei, salbuespenik gabe, bermatuko zaie hiritar guztiei ematen zaien arreta mediko-sanitarioaren baliokidea”. Bistan denez, baina, errealitatean gauzak ez dira hala, osasun irizpideei beste batzuk gailentzen baitzaizkie –segurtasunezkoak, erregimenaren araudiari edo aurrekontuei loturikoak, politikoak...–. Zentzu horretan, espetxeko osasunaren eskumena nok izan, bada ezberdintasunik. Espainiako Estatuan eredu orokortua 1986tik datorrena da: Espetxe Administrazioa arduratzen da lehen arretaz, eta Espainiako Osasun Sistema Nazionala artatze espezializatuz. Lehen arreta Espainiako Espetxe Erakundeek idazkaritza nagusiaren esku geratzen da, eta erraztu egiten du osasun irizpideen aurretik bestelakoak jartzea. Hala dela baieztatu du Jaiki Hadik: “Sendagileak espetxe funtzionario izateak espetxe arauak presoaren osasun behararen gainetik ezartzea eragiten du behin baino gehiagotan”. Hori gutxi ez, eta beraiek, kanpoko mediku bezala presoak artatzerakoan, “asistentzia, diagnostiko eta tratamenduak” burutzeko oztopo eta arazo larriak izaten dituztela diote. Argi mintzo dira: “Kontraesan nabarmenak daude Espetxe Kodearen eta [Medikuntzako] Kode Deontologikoaren artean”.

Nafarroak, EAEk ez bezala, eredu hori mantentzen du. Iruñeko espetxeko osasunaren eskumenak Espainiako Espetxe Erakundeek idazkaritza nagusiaren eskuetan jarraitzen du. Salhaketa Nafarroak “ezinbestekotzat eta urgentziazkotzat” du Nafarroako Gobernuak eskumen hori bere egitea, “moteltasunak, blokeo burokratikoak eta desadostasun politikoek” egoera bere horretan mantendu bitartean presoen osasun eskubideak urratzen ari direlako, “hori izanik urtero espetxeetan ematen den heriotza marearen benetako eragilea”.

EAEen bestelakoa da espetxeetako osasunaren kudeaketa 2011 urteaz geroztik.

Espainiako Kongresuak 2003an Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitate Legea onartu ondotik, Espainiako Gobernuak derrigorturik dago Espetxe Erakundeek menpeko osasun zerbitzuak autonomia-erkidego bakoitzari transferitzera; izatez hemezortzi hilabeteko epea zuten egiteko hori gauzatzeko, baina gaur egun oraindik osasunaren eskumenak Espetxe Erakundeena izaten jarraitzen du kartzela gehienetan. Espainiako Estatu osotik, soilik EAEn eta Katalunian aldatu dira eskuz osasun eskumenak. 2011tik Osakidetzaeren menpe daude Bizkaiko,

## Hainbat dira borrokara batzen den presoak arriskuan jartzen dituen aspektuak, eta osasuna ez da salbu

Gipuzkoako eta Arabako kartzelotako osasun kompetentziak, eta horrek bada-kan onurarik presoen osasun eskubideak errespetatzeari dagokionez. “Positibotzat” du Martinez de Marigortak: “Horrek esan nahi du kompetentzia dutenak ez direla espetxe funtzionarioak, baizik eta kanpotik datozen osasun langileak; horiek beste ikuspuntu bat izan dezakete, eta presoen osasunaren alde jardun”. Alabaina, eskumena Osakidetza izanik ere, heriotzak espetxeetan gogor kolpatzen jarraitzen du, Zaballan jazotakoak horren adierazle garbi. Horren aurrean, Salhaketa Arabak bere eskakizuna argi helarazi dio Eusko Jaurlaritzari: “Espetxeko kompetentzia bakarra osasunarena duen heinean, hori indartu dezala”.

## PRESOAK BEREN ESKUBIDEEN ALDE BORROKAN

Barrote artean bizi duten osasun egoera prekarioaren eta beste hainbat baldintza negargarriren aurrean borrokan dira presoak. Espainiako Estatuak espetxeetan, 2019ko azarotik gose greba birakaria ari da gauzatzen *Presxs en lucha* (Presoak borrokan) kolektiboa, eta beste hainbat exijentziaren artean dituzte osasun arreta egokia eta preso gaixoen kaleratzea: “Legea ez bete izanagatik atxilotu gaituztela uste den bitartean, teorikoki lege hori defendatu beharko luketen horiek trufatu egiten dira gure eskubideak defendatzea-

ri dagokionez (...) hasteko, beraz, hori besterik ez dugu exijitzen: gure eskubideak bete daitezten, eta ez soilik guri exijitu gure betebeharrak”.

Espetxe barruan abiatutako ezein borroka, baina, badu bere ordaina mobilizatzen diren presoentzat. Menderakuntza-sisteman oinarritutako instituzioa izanik, bere arauen aurrean sumisioa agertzen duen preso saritu egiten du, eta altxatzen dena, berriz, zigortu. Jarreraren arabera, presoak aukera gehiago edo gutxiago izango du senideen bisitak jasotzeko, kalera ateratzeko baimenak lortzeko edo etxetik gertu kondena betetzeko, besteak beste. Hala bada, hainbat dira borrokara batzen den presoak arriskuan jartzen dituen aspektuak, eta osasuna ez da salbu. “[Espetxeko] menpekotasun sistema artikulatzen duen mekanismoa sailkapen graduak eta tratamendua dira”, dio Jaiki Hadik. Borroka egiteak eskutik dakar mekanismo horren ondorioak pairatzea, tratatu txarrak jasotzeko eta lehen graduan isolatuta egotera igarotzeko aukera nabarmen handituz; eta horrek, era berean, eragiten du presoaren osasuna kinka larrian jartzea. Abolizioak soilik eten dezaken gurpil zoroa. ●



**mitxelena**  
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21  
HERNANI

info@talleresmitxelena.com  
www.talleresmitxelena.com



# Jendartearen lotsak azpian ezkutatzeko alfonbra da espetxea”

EKAITZ SAMANIEGO CURIEL

Urtarrilaren 5ean irten zen Zaragozako Zuerako espetxetik. 2012an espetxeratu zuen Ertzaintzak Auzitegi Gorenaren agindua betez, herritarren maitasun eta amorru keinuen artean. Zortzi urteren ondoren Gasteizen da berriz Ekaitz Samaniego. Irribarretsu eta alai dago, etxean egoteaz gain etxean sentitu delako espetxetik irten denetik. Urteotako eta egungo pozak, minak eta kezkek konpartitu ditu ARGIArekin eta HALA BEDIrekin.

 ZIGOR OLEAGA  DOS POR DOS

## Hilabetea joan da irten zinenetik. Zer moduz doa lurreratzea?

Oso ondo. Kalea zapaldu dudanetik gauza ederrak bizi ditut, eta oraindik horretan. Pertsonak eta lekuak berreskuratzen. Etxean.

## 2012an espetxeratu zintuzten, arrastoa utzi zuen salaketa kanpaina entzutetsu eta jendetsu baten ostean.

Egin genituen guztiaren oroitzapen ederra daukat: elizaren okupazioa eta bertatik abiatutako mobilizazioak, askotariko ekimenak eta harreman dinamika zabalak. Jendearen konpromisoa eta indarra. Maila afektiboan elkarriz maitasuna eman genion etengabe, eta horrek asko arindu zuen sufrimendua. Txera izugarri oroitzen ditut elizan izkina batetik begira jarri eta maite ditudan pertsonak lanean ikusten nituenekoak. Egun zailak izan ziren ere bai, zama handikoak, baina espetxera oso indartuta sartu nintzen, maitasunez lepo eta oso harro gure jendeaz. Bai, lorratza utzi zuen. Garai hartan oso gaztetxo zirenak etorri zaizkit gerora,

esanez arrasto polita utzi ziela. Nire pertsonatik harago, lortu zen gure herrian bizi genuen errepresioa ikustaraztea.

## Gogorragoak izango ziren ezkutuan emandako bi asteak.

Lagun eder batzuen etxean eman nituen egun horiek, lasaitasun eta babes handia eman zizkidaten. Oso egun surrealistikak izan ziren, baina elizaren okupazio garaian izan ez nuen pausa hori orduan izan nuen. Lagungarria izan zen lasaitasunez hausnartzeko eta espetxeratzeko prestatzeko.

## El Corte Inglesen atxilotu zintuzten, milaka lagunek manifestazioa egin ostean bertan kateatu eta gero.

Atxiloketa unea fresko dut buruan. Gogoangarria izan zen, aurreko guztiaren leherketa. Une hain itsusia edertzea lortu genuen. Jendearengan sumatu nituen izugarriko gogoa eta indarra. Oso sentimendu kontrajarriak batzea lortu genuen: inpotentzia eta ahalduntzea, tristetia zegoen baina zoriontasun handia

lapurtu genien egun horiei. Horrek beti du indarra gerorako txingarrak uzteko.

## Gorka Urtaran, ordurako EAJko Gasteizko alkategaia, elizan izan zen eta zure egoera salatzen kontzentrazioa batu zen. Orduan alkate zen PPko Javier Marotorekin bilera bat egin zen, ez zena publiko egin hark eskatuta. Zure kasua injustua zela onartu zuen, goiz zela baina baina pixkanaka gauzak aldatuko zirela. Gaur hori gertatzea zailagoa dirudi.

Gurasoak egon ziren Marotorekin. Soriano Sotosalbosera ez da helduko berria, beraz kontatu dezakegu [barreak]. Guk aukera guztiak bilatu genituen gertatzen ari zena azaltzeko. Borroka armatua bukatua zela hilabeteak ziren jada. Izan daiteke, Urtaranek eta Marotok, bere zurikerian ere, garai berrien aireak arnastea une hartan. Eskerrak ez dizkiet emango. Injustizia horiek injustizia bezala biziko balituzte, euren alderdiak utziko lituzkete.









**Ekaitz etxean! dinamikaren aurretik izan zen antzeko ezaugarriak zituen borroka desobedienterik Ipar Euskal Herrian. Ondoren etorri zen herri harresien dinamika... Nola bizi izan dituzu espetxetik?**

Dinamika haiek oso ageriko puntu txar bat zuten komunean: pertsonak espetxean amaitzen zuten. Esan bezala kontraste handiko egoerak dira, baina harrotzeko modukoak. Gure osasun militante eta afektiboa indartu zuten.

**Eta espetxera sartu zinen 22 urte eskasekin.**

Pilak oso kargatuta sartu nintzen aurreko dinamikaren ondorioz, espetxea-

ri neurria hartu gabe. Hilabete batzuen buruan hasi nintzen kartzela benetan sentitzen. Lau hilabete pasata Arabako Zaballatik Salamancako Topasera eramane ninduten. Topasen orokorrean asko zaindu ginen preso politikoen artean. Ez noa idealizatzeraz, kalean bezala harreman batzuk urrunera heltzen dira eta beste batzuk ez, baina badago kideon arteko elkar zaintza. Gehienetan kide oso beteranoekin egon naiz eta asko ikasi ahal izan dut haiekin patioa konpartituz, bai kartzelaz, bai kaleaz. Ederra izan da lagun horiekin topo egitea.

**Euskal preso politikoen arteko presorik gazteenetarikoa zinen,**

**gazteena ez bada. Kezkatzen zaitu gazteen eta presoaren artean transmisio etena sortzeak?**

Ziklo berriak eta gatazka nazionalaren tentsio maila apaltzeak akaso eragin du transmisioa ahultzea. Kezka garria? Ez dakit zer puntutaraino, borrokan ari diren egungo belaunaldi berriek transmisiorik gabe ere asmatuko dute haien bidea egiten. Edonola ere, pozgarria litzateke transmisio hori egitea, ikusmira aberastuko liokeelako edonori.

**Presoen kolektiboaren bi eztabaida oso garrantzitsu bizi izan dituzu 2013an eta 2017an.**

Borroka armatua aldebakartasunaren logikaren pean amaitu zen, baina itxiera horrek arrisku handia zuen presoengan zintzilik uzteko. Eztabaida haiek gaia askatzeari begira egin ziren. Noski, oso eztabaida eztabaidatuak izan ziren [irribarre egiten du]. Poztekoa ikusten dut erabaki esanguratsuak daudenean jendeak buruari eragitea eta erabakitzea zer posizioan jartzen den. Baina Kolektiboak erabaki batzuk hartu zituen. 2017an espetxearen bide legalak baliatzea erabaki zen. Batzuk bide horiek erabili dituzte, zailtasun askorekin, eta beste batzuk ez. Nik guztientzat babes eskatzen dut.

Aldaketa gertatu zenean kide batzuek hamabost edo hogeitun urte zeramatzen eusten, eta agian beste horrenbeste urte geratzen zaie espetxean. Ez dezagun zama individualizatu eta militanten bizkar utzi. Analisi orokorrak eta sakonagoak askoz positiboagoak dira, hainbeste urtetako borrokaren ostean atzo hartutako erabaki baten edo bestearen arabera militantei domina kentzea edo jartzen tematzea baino. Berriz diot, denei errespetua eta babes.

**Nola ikusten duzu presoengan gaia orain? Batetik iritzi baikorrak daude, Foro Sozialak adierazi...**

[Minduta hartzen du hitza galdera amaitu aurretik] Foro Sozialak labaindu egin da bere zenbait adierazpenetan. Esaterako azkenengoetan: gobernuaren borondatea eta presoena ezin dira maila berean jarri. Presoek oso urrats zailak egin ditugu korapiloa askatzen saiatzeko, eta beste aldetik ez da deus etorri. Orain pausoak emango balitu ere, zer egingo du gobernuak, gerturatu? Preso jarraituko dute. Gogorra egin zitzaidan Foroari borondateak berdintzen entzutea. Gobernua legeak betetzen hasten



bada oinaze handia aurreztuko da eta izugarri poztuko naiz, baina nire aldetik txalo gutxi, sakoneko arazoak iraungo baitu. Besarkadak eta txaloak kideentzat eta senideentzat gordeko ditut, irteten diren egunerako.

Egoera zail ikusten dut. Espetxe bideak hartu dituzten kideei dagokienez, ez da estatuaren aldetik finkatutako bide-orri zehatzik atzematen, espetxe bakoitzak onartu edo ukatzen ditu gradu aldaketak, irteerak, gerturatzeak... Hurrengo urteetan hainbat kide irtengo da, eta geratuko da beste multzo bat oso zigor luzeekin, adinean gora doana eta dispersioa jarraitzekotan are bakartuago egongo dena.

### **Nondik jo behar dela uste duzu?**

Egin, asko egiten da. Urteotan askotariko jarrerak izan dira, baina mugimenduak gihartxoak dauka. Salatzen, mobilizatzen, elkar zaintzen jarraitu behar dugu. Espetxean, kideak ari dira modu batera edo bestera bideak irekitzen. Ni ezkorra naiz Espainiako Estatuari dagokionez. Presoak askatzeko bide-orri bat garatzeak zeharo harrizko ninduke. Jarrai dezagun lanean eta baldintzak nola sortu hausnartzen.

Urteotan, borondate onenaz, bake bideak zabaltzen saiatu dira asko. Baina, sekulako lorpena izango den arren, presoak kaleratzea al da bakea? Hitz egin dezagun sistemaren egiturazko zapalketa guztiez. Bakea, existitzekotan, helmuga utopiko baten moduan ulertu dezaket bakarrik.

Bestela arazo asko ariko gara bazterrean uzten eta normalizatzen. Ulergarria da gatazka armatu baten ostean bakea hitza hainbestetan erabiltzea, baina zabal dezagun kontzeptua.

### **Kartzela-instituzioaren inguruko kezka garatu duzu urteotan. Esan izan duzu ezinezkoa dela hitzez adieraztea espetxea zer den, zenbat ertz eta kalte biltzen duen.**

Jendarte honek egiturazkoak diren hamaika biolentzia du. Kartzela horietako bat da, hain zaharra, hain gertu duguna, eta hala ere oso ezezaguna izaten jarraitzen du. Ez da kasualitatea. Lotsak azpian ezkutatzeko alfonbra da. Espetxeko patioan oso eremu behartsuetan jaiotako lagunak eta militante politikoak

aurkituko dituzu. Argazkiak jendarte auzitan jartzeko balio du. Zer gatazken ondorioz daude hor militanteak? Gehiengoak pobrezia kalte guztiak azalean daramatza. Sistemak limitera eramaten ditu bizitza horiek, eta une jakin batean erabakitzen du: "Orain espetxera, gure hirietako postala zikindu ez dezazuen". Halaber, tratatu txar emalile ugari dago orain, kartzelarekin konponduko ez den beste egiturazko arazo 'espetxeratu' bat. Kartzelaren aurkako kontzientzia garatu behar dugu. Eraitsi ditzagun eta hasi gaitzen alternatibak pentsatzen eta martxan jartzen.

### **Espetxearen kalte batzuk ikusgarriagoak zaizkigu –isolamendua, jipoiak...–, beste batzuetan aldiz apenas jartzen dugu arreta. Zentzumenen anputazioan edo irentzean, esaterako. Ia preso guztiek bezala, zuk ere urruneko ikusmena galdu duzu espetxealdian, espetxean ez dagoelako urrunera begiratzerik.**

Bai. Beno, metaforikoki ez, luzera begiratzen saiatzen gara [barreak] baina fisikoki bai. Ukimena: zure konfiantzazko eta gertuko jende gehiena ukitzea debekatuta duzu. Koadrilako lagun batek esan dit urteetan: "Ez dakizu zer gogonekan zu ukitzeko". Jakina, eta nik. Zortzi urte lagun maite horri besarkada bat eman gabe edo usaindu gabe. Sexualitatea: bis intimoko konpartitzeko lagun bat badoa edo senideak edo lagun bat familiako bisetara badoaz izango duzu aukera laztanak eta musuak emateko. Bi hiru orduz hilean behin. Kideekin ere goxotasunez elkarbizi daiteteke, baina mugaz betetako esparrua da sexualitatearena. Entzumenen: zarata nola doan metatzen eta urteetan zarata nola pilatzen zaizun. Patioaren murrizta, elikaduraren eskasa, gaixotasun edo menpekotasun batetik sendatzeko ezintasuna eta ondorioz edozein arazo txikik sortu ditzakeen mamuak eta antsietateak. Eta noski, norbait espetxeratzean pertsona horren inguruan eragiten den mina izugarria da.

Goazen pertsoneri erantzun duinak ematera, baita gauzarik nazkagarrienak egin dituztenei ere. Errazena "zulora! zulora!" esatea da. Bada, ez. Horrek ez

du balio. Guretzat aldarrikatzen duguna eman diezaiogun: pentsa dezagun zeintzuk diren kausak, zeintzuk konponbideak. Kartzelak ezin du hori egin. Baina kartzela negoziua da, eta mehatxatzeko bitartekoa, horregatik sustatzen dute.

### **Nola gurutzatzen dira maskulinitatea eta kartzela?**

Kartzelak bultza zaitzake maskulinitate eredu txarraren portaerak hartzera. Ni zorteko naiz barrua norekin hustu izan baitut, baina emozioak konpartitzea oso zaila da han. Presoa bere baitan ixtera eta jarrera itxuraz heroikoak hartzera bultzatzen du aurrera egiteko, baina horrek pertsona puskatzen du. Patioan giroa oso homofobia da, oldarkorra askotan, *matxitoa*. Eta hori ezin da tratatu kartzelan. Dena den, kartzela gure munduan dago, kanpoan dagoena areago-tzen du, ez besterik.

### **Beti izan duzu herrigintzarekiko ardura. Ba al da ilusio berezirik piztu dizun borroka edo mugimendurik?**

Zalantzarik gabe, feminismoak, orain eta aurreko urteetan. Garai zailak bizi ditugu eta zaila da totem nagusiak eraistea. Hausnarketak eta planteamendu sakinak espero ez ziren esparruetaraino ere zabaldu ditu, eta bere betaurrekoak herri mugimenduetara luzatu, feminismoa izan da hori. Gazterian pizten ari den kontzientzia maila izugarria da. Hamarnaka urte, txikitasunetik eta ostikoak ematen atean zulutxoak zabaldu dute. Bestela, poztu nauena da ikustea bazebilen jende asko badabilela, eta jende berria heldu dela. Nor berean. Gaztetxeko Gazte Asanbladara igo eta inor ez ezagutzeak, norbere adinaren inguruko gogoeta bat sortzarekin batera [barreak], ilusio izugarria pizten dit.

### **Hormak ere antzaldatu dira, ezta?**

[Barreak] Bai, aniztu dira pintaketak, eta hori pozgarria da. Batzuk langile klasea lehen lerroa ekarri, pintaketa antiespezistak, independentziaren eta gazte mugimenduaren aldekoak, feministenak...Garrantzitsuena horma zurien aurkako gurutzadan jarraitzea da, horma zuria beti direlako deserosoak. [barreak].

### **Zer asmo duzu aurrera begira?**

Asmo zehatzik ez, momentuz. Gozatzea, gure ingurunea berriz ere ezagutzea. Kaleak ibili, jendearekin elkartu, eguneratu eta berrezagutu. ●



**Foro Soziala labaindu egin da bere zenbait adierazpenetan. Gobernuaren borondatea eta presoena ezin dira maila berean jarri”**

## IRUÑEKO EUSKARAZKO HAUR ESKOLAK

# Bi eskola nahikoa direla erabaki du alkateak

Afera “normalizatu” du Enrique Maya alkateak, bere ustez. Euskarazko eskaintza handiegia zela zioen eta bere parametroen arabera ezarri du: etorkizunean, udalak kudeatzen dituen hamaika haur eskoletatik bira jaitsiko da euskarazko zentro kopurua, orain arte zenaren erdira. Tristuraz eta kezka, ehunka familia bildu ziren otsailaren 1ean, Iruñeko Udaletxe plazan eginiko elkarretaratzean, eta hizkuntza eta hezkuntza eskubideak errespetatzea aldarrikatu zuten.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  
 EKINKLIK.ORG

**H**ezkuntzako matrikulazio garaian gauden honetan, euskaraz hezi nahi duten Iruñeko haur eta gurasoek izango dute buruhausterik gutxienez etorkizun hurbilean. Bost urte atzera egitea erabaki dute Navarra Sumako Enrique Maya alkateak eta bere udal gobernuak, lehengo egoerara itzuliz eta hura aise gogortuz. Udalak kudeatzen dituen hamaika haur eskoletatik –2019ko udazkena arte hamabi, Arrotxapea auzoko bat egoera kaskarrean dago eta ez zuten ireki– bi baino ez dira euskara hutsezkoak izan azken 30 urteotan. Biak ala biak Txantrea auzoan, hiriaren iparraldean. Alabaina, azken legegintzaldian Joseba Asiron (EH Bildu) alkate zuen lauko gobernuak kopurua laura igo zuen urte batetik bestera. Aldaketen prozedura irregularra izan zela salatu zuen oposizioak, eta arrazoia eman zioen epaileak. Hala, eskuinak alkatetza berreskuratu eta euskarazko haur eskolen murrizketak iragarri ditu Mayak: lautik bira jaitsiko da kopurua. Hirugarren eskola batean, Arrotxapeko Goiz Ederren, ikusteke dago zer gerta daitekeen, euskaraz ari den haur eskolan gaztelania-ingelesa eredu a sartu nahi baitute. Lau eskola izatetik bat eta erdira pasatuko da Iruñea, beraz.

Moldaketa “progresiboa” izango dela adierazi du alkateak, jada eskoletan dauden haurrek hiru urteko ikasketak prozesu osoa matrikulatu diren eredu egin dezaten. Modu honetan, legegintzaldia amaitzen denerako ezarritako helburua beteko luke Mayak. Progresibotasuna epaiak berak adierazten duen arren, COPE irrati kate espainiarrean eginiko adierazpenetan bere ideia zela ulertzera eman zuen alkateak, eta aurreko gobernuari hirian arazoak sorraraztea leporatu zion, familiak sufriaraztea eta harropuzkeriaz hezkuntza ereduak inposatzea. “Inori ez diezaiotela nahi ez duen ezer inposatu”, azpimarratu zuen hainbat aldiz.

Maddik eta Beñatek ez dute beraien hezkuntza prozesuan kalterik pairatuko aldaketaren ondorioz, aurten amaituko baitute Goiz Eder eskolako hiru urtekoa. Dena den, neba-arreba bikien guraso Aitziber Biurrun kezkatuak azaldu da, beraien egoera ez bada ere, hemendik aurrera ehunka familia iruindarren hautua –haurrak D eredu hezte, izatez oinarritzko eskubidea dena– urratu edo airean geratuko baita. Tristeza dela esan du, izan ere, beste behin, hiriko eta hiritarren arteko afera zena politika egiteko baliatu da.

Udal gobernu berriak atzeko aurrera jarri ditu azken agintaldiko erabaki eta ordenantzak, eta horiek xehetu zituen Xabier Letonak ARGIAren 2.675 zenbakian. Haurren eskaintza ere zeharo moldatu da maiatzetik hona: Pirritx eta Porrotxen emankizuna bertan behera utzi zuten azaroan, eta Eguberrietan haurrei zuzenduriko ekintzetan euskararen presentzia nabarmen murriztu zen, besteak beste.

Irailean alkateak haur eskolez eginiko adierazpenek erne jarri zuen hainbat familia. Kezka gailendu zen gurasoen artean, eta okerrera espero zutela dio Biurrunek. Orain etorri da errebolta, baina argi diote euren eskubideak aldarrikatuko dituztela. Iruñeko Euskalgintza plataformak gidatzen du euskarazko murgiltze eredu babesteko mugimendua, eta bertako partaide dira hiri buruzagiko euskaltegiak, hainbat kultur elkarte, familia eta guraso taldeak, Hizkuntz Eskubideen Behatokia, Kontseilua eta LAB, ELA eta Steilas sindikatuak. Urtarrilaren 23an publikoki azaldu zuten kezka, eta otsailaren 1ean ehunka lagun elkartu ziren udaletxearen aurrean. Adin guztietako jendea batu zen protestara, haur, gazte zein heldu, eta aldarte onean dantzan eta abesten aritu ondoren, euskarazko haur eskolen premia eta hezkuntza eta



hizkuntza eskubideak aldarrikatu zituzten. Matrikulazio garaian inkesta edo ikerketa bat egiteko ideia ere aipatu zuten, galdeketa moduko bat egitea, finean, benetako eskaintza zein den argitzeko eta eskubideak bermatzeko.

Izan ere, haur eskolen sareak euskarazko "eskaintza handiegia" zuela adierazi zuen Mayak ikasturte berriaren hasiera ekitaldian. Baina Nafarroako Auzitegiak aurkezturiko epaiak ez dio halakorik, ezta gutxiago ere. Prozedura gauzatu zen moduaz soilik mintzatu da, eta hura irregulartzat hartu du. Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendari Agurne Gaubekaren iritziz, oraingo gobernuua uneaz eta epaia nolabait alde edukitzeaz aprobetxatzen ari da. "Beraien helburu politikoa aurrera ateratzeko aitzakia" dela adierazi zuten otsailaren 1eko elkarretaraztean. Izan ere, 2016an, udal gobernuko lauokoa ikasturte batetik bestera aldatu zituen Donibane eta Printzearen Harresiko haur eskoletako ereduak, gaztelaniazko zerbitzutik euskarazkora, eta horrek hainbat familia erdaldun mugitzera behartu zituen. Oposizioak aukera baliatu zuen salaketa jartzeko.

### UKATU NAHI DEN ERREALATEA

Datuei erreparatuta, are larriagoa dirudi zapalkuntzak: hiriko haurren %25 inguru dira euskaldunak, eta eskaintzen den euskarazko plaza kopurua %11 baino ez da. Asiron alkatearen garaian, %11tik %28ra igo zen zifra, bi eskoletatik lautara, eta auzo bakarrean kokatzeetik beste hiru gehiagotara. Aipatzekoa da, baita ere, haur eskola amaituta haurren ia erdiak A eta D ereduari matrikulatzen direla.

Zenbakiak zenbaki, egungo udal gobernuarentzat nahikoa eta gehiegi zen aurrekoak eskaintzen zuen kopurua. Eskaintza eta eskariaren parametroak baliatu ditu Mayak azalpenak emateko, baina Gaubekak uste du afera ez dela hortik bideratu behar: "Eskaintzen diren euskarazko plazak betetzen dira, bai, baina arreta iruindarren hizkuntza eskubideen urraketan jarri behar da". Urraketa, finean, agintean dagoen alderdiak euskaraz gutxiestetik dator –publikoki adierazi zuen Mayak "logikoen" eta "zentzuzkoena" eskaintza gaztelaniaz egitea dela–.

Bestalde, Navarra Sumaren aliatu nagusiarri ere erreparatu behar zaio, ez

baitute gehiengo absoluturik udalean. Hargatik, PSNrengan ere jarri du fokoa Biurrun gurasoak, eskuineko hiruko koalizioaren esanetara jokatzea leporatuta: "PSNk ez du ukatzen euskara babestu behar denik, zentzu horretan errespetuz agertzen da, baina Navarra Sumak aurkeztutako erabakiaren alde egin eta onartu du".

Ezin uka daiteke Nafarroako eta batik bat Iruñeko testuinguru soziolinguistikoa asko aldatu denik eta aldatzen ari denik azken urteotan. Agintari eskuindar elebkarrek ezarritako lege, egitura eta zerbitzuak sarri ez datoz bat biztanleek nahi eta eskatzen dutenarekin. Euskarak lehen baino hiztun gehiago ditu, eta gero eta gehiago dira euskarazko zerbitzuak eskatzen dituztenak. Kopurua esanguratsua zen, baita Mayaren aurreko zein Yolanda Barcinaren alkatetzaren garaian ere, eta haur eskolen gaia arazo zen lehen ere: aldizkari honetan duela sei urte emandako datuaren arabera, eskaria eskaintza baino hiru aldiz handiagoa zen. Gaur egun handiagoa izango da aldea ziurrenik, zentro kopurua ordukoa baino are makurragoa baita. ●




**HASERREA KALEAN** Otsailaren 1ean Iruñeko Udaletxe plaza lepo bete zen euskarazko haur eskolak eskatzeko. Navarra Sumaren erabakiak ehunka guraso eta herritar haserretu ditu.



# LAGUN LORATUAK AMETS



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



Lizunak gauza onak biltzen ditu. Borobiltzen ditu. Bizitza burutzerara darama lizunak azpian harrapatzen duena.

Loratu da ogia. Ogia bakean utzi eta denboraren poderioz, bere azalean soinekoa josteko gai da. Hezetasunaren laguntzaz lizuna itsasten zaio, eta lizurdinduta, loratu egiten da. Lizun dotorea hazten du.

Loratzen denak badauka zer emana. Loreak ondorengo du fruitua, hazia duen fruitua, bizitza berriari ekingo dion hazia. Nik loratzen den jendea nahi dut inguruan. Lagun loratuak amesten ditut, eta ogi loratuak, eta jogurt loratuak, eta lukainka loratuak, eta erreximenta loratuak, eta gazta loratuak, eta marmelada loratuak, eta muztio loratuak... Lizunak gauza onak biltzen ditu. Borobiltzen ditu. Lorea burutzen edo aletzen den era berean, bere bizitza burutzerara darama lizunak azpian harrapatzen duena.

Loratzea gauza handia da, gorena, gaurraren ataria. Handinahikeriatan dabilenari, kaka-loratu deitzen zaio. Izan ere kaka ere loratzen da; kaka-lore esaten zaio kaketan sortzen den loreari. Baina ba al da kakatan ateratzen den lorarik? Nik ez dut ezagutzen. Kaka simaur bihurtu eta ondo luartu denean ia edozein landare haziko da bere gainean. Baina kakatan bertan hazten denik ez dut gogoan.

Baina kaka bera loratu daiteke bai. Lizunetan loratzen da. Aziendaren azpitatik

ateratako simaurra kalitate oneko ongarrri bihurtzeko behar bezala luartu behar da. Garai batean simaurrari beste osagai organiko batzuk nahasten zitzaizkion: orbela, arto-zutarrak, otea eta abar. Horrek luartzearen lehen hartzidura sustatu eta onbidetan jartzen du. Hartzidura hori oxigenoa arnasten duten mikroorganismoen esku dagoenez, luar pila zenbat eta oreuago orduan eta hartzidura hobea. Ukuilutik atera eta luartokian pare bat aldiz irauli egiten da luar pila. Iraultza ilbeheran egiten da. "Ilbeheran nahastutako simaurra ondo mantendu eta indartsua ateratzen zen", zioen Altzoko Otsegi baserriko Migel Murua Mendizabalek 2001ean *Euskonews* aldizkarian argitaratutako elkarrizketa batean. "Ilberrian nahastu ezker, simaurra zuri-zuria gelditzen da, arin-arina, eta ez du ezertarako balio".

Simaurra zuri-zuri? Satsa urdinu egin dela esango luke Atxondo bailarako Arrazolako Agarreganekoa baserriko Antton Arkarazo "Otxorpo" zenak. Eta, sats zaharraren lizun horrek simaurra alferrik galtzen baldin bazuen ere, Anttonek erabilera ederra ematen zion. Zauriren bat zuenean lizun edo bizar zuri hori labanarekin garbi-garbi kendu eta gainean jartzen zion sakitutako azalari. Azal lorean. Ederki arraperdatzen omen zen. ●

## IRAKURLEAK GALDEZKA

Hil honetan noiz bota behar zaio karea koskorra garoari?

↳ Pedro

Nahi duzunean. Bere lana egiteko zenbat eta lehenago hobea. Aurten gainera goriak aurreratuta datoz eta kanpoa mugitzen ari da. Zu ere mugitu, beraz.



Bidali zure galdera:  
jakoba@bizibaratzea.eus



ARTATXIKI BIOGUNEA

# KONTSUMO ARDURATSURAKO GUNE BERRIA DONOSTIAN



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN



**G**une berria du Donostiako Intxaurrondo auzoak: Artatxiki Biogunea. Urtarrilaren 24an egin zuten proiektuaren inaugurazio festatxoa, bizi-lagunez eta bazkidez inguratuta. “Duela urtebete inguru hasi ginen taldetxo bat kontua mugitzen: apirilean egin genuen proiektuaren aurkezpena, eta dendaren kokaguneaz hasieran eztabaidak izan bagenituen ere, azkenean aspalditik ezagutzen genuen lokal hau aukeratu genuen”, adierazi du Leire Garro proiektuko kideak.

## Ekologikoa, Bertakoa

Produktu ekologikoen eskaintza egiten dute Artatxiki Biogune ireki berrian, baina eskaintzen dutenetik ahal den guztia gertukoa izatea ere bermatu nahi dute: “Lehentasuna bertako ekoizle txikiei ematen diegu, oso garrantzitsua baita haiekin dugun hartu-emana guretzat”, dio Garrok. Ekoizpen ekologikoan diharduten zigiludun ekoizle handiagoei ere erosten dizkiete produktuak, hurbilagoetik lortzea zailagoa den kasuetan.

Bestelako kontsumo ereduak bultzatzea dute helburu denda berriaren irekierarekin. Izan ere, egun gizartearen gehiengoak kontsumitzen duen moduak nekazari, abeltzain eta ekoizleen prekaritatea sustatzen duela argi dute bultzatzaileek, eta horri buelta ematea dute asmo. “Artatxikin eskaintzen ditugun produktuei salne-

rriak ekoizleek beraiek jartzen dizkiete, eta zuzenean ordaintzen zaie, bitartekorik gabe”. Gainera, produktu asko freskoan eta granelean saltzen dituzte, nahiz eta Garrok onartzen duen oraindik nahi baino gehiago saldu behar izaten dutela ontziratuta.

## IBILBIDE MOTZA, ERANTZUN HANDIA

Biogunean erosketa egiteko aukera dute elkarteko bazkideek nahiz bazkide ez direnek. Desberdintasunak badira, hala ere: bazkideek %6 merkeago eskuratuko dituzte dendako produktuak, eta erosketa kolektiboetan –hala nola olio eta kontserbak– parte hartzeko aukera ere izanen dute. “Bazkide izateko bi modu ditugu: 60 euroko kuota osoa ordaintzea proiektuan beste moduren batean parte hartu beharrik izan gabe, edo 35 eurokoa ordaintzea urtean zehar beste boluntario lan batzuk ere eginez”. Hasieran 30 bazkide ziren, denda ireki eta astebetera jada 55 ziren. Badoaz bidea egiten, beraz.

Interesa duen edonor elkartarekin harremanetan jar daiteke artatxikibiogunea@gmail.com helbidera idatziz edo zuzenean Intxaurrondo kaleko 54. zenbakiko dendara hurbilduz. Oraindik biogunean martxa hartzen ari dira, eta horretan zentratuta badaude ere, kideen asmoa bestelako ekimenak antolatzen hastea ere bada. Ongi etorriak izan daitezela, bada, eta urte askotarako! ●

## EUSKAL HERRIKO AGENDA

### OTSAILAK 15

#### DONOSTIA

*Bihotz Inguru* txangoa Jaizkibelera. 3-6 urte bitartekoentzat egokia. 10:30ean Cristina Enean.

IZENA EMATEKO:

bihotzinguru@gmail.com

### OTSAILAK 16

#### MUNGIA

*Abeltzaintza azoka*. Behi, ardi, zaldi eta ahuntzazienda. Nekazaritzako tresnak eta makineria. Baserriko produktuen erakusketa eta salmenta.

### OTSAILAK 18

#### IRUÑEA

*Kafe eta bizkotxo, museoan zortziak arte nahikotxo* lantegia. 18:00etan Ingurumen Hezkuntzako Museoa.

### OTSAILAK 19

#### HERNANI

*Hazitegia egin eta zaintzeko tailer praktikoa*. 18:00etan Karabelekon (Portu auzoa, 34).

### OTSAILAK 23

#### ARRONIZ

*Ogi txigortuaren eguna*.

### OTSAILAK 23

#### BERBINZANA

*Mahatsondoaren txertaketaren festa*.

### OTSAILAK 25

#### DONOSTIA

*Haziak ugaltzeko tailerra*. 17:00etan Uliako Lore Baratzan.

## AGENDA



### BERDEA DA MORE BERRIA LIBURU AURKEZPENA

Liburuaren egile Onintza Irureta eta Gipuzkoako zaharren egoitzetako grebalarari bat arituko dira mahai-inguruan.

🕒 **Otsailak 28** 18:00etan  
♥ **Mundaka** Udal liburutegian



### BETERRI SARETUZ II. JARDUNALDIA

Partaidetzan oinarritutako enpresen eskualdeko ekosistema sortzeko programa da. Enpresa, Lanbide Heziketa, ekintzaile eta garapen agentziari zuzendutakoa.

🕒 **Otsailak 13** 9:00etatik 13:30etara  
♥ **Hernani** Iturola Elkarlan Sorgunea

### AZKOITIKO MAXIXATZEN EUSKALDUNON ELKARTEAREN "ORBEL JOKOAK"



2017ko Orbel Jokoen finala.

## Bultzada emateko modu asko daude

🔗 **ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA**

**A**zkoitian badute afizio berezi bat naturarekiko. Urtaroekiko, garaian garaikoarekiko. Bai, behintzat, Maxixatzen Euskaldunon Elkarteko kideek. Hala iruditu zait niri, jakin dudanean beraiek antolatutako bi izar direla, batetik, *Maiatzeko Lorak* ekitaldi-sorta eta, bestetik, *Orbel Jokoak* ginkana. ARGIArekin zein lotura duen? Utzidazu tartetxo bat azaltzeko zer egiten duten Urola bailarako herri honetan eta aurreraxeago kontatuko dizut zergatik iruditu zaigun polita zuk hau ezagutzea, irakurle.

Karmen Irizar euskara elkarteko kidearekin hitz egin dugu. Hark esplikatu digu, hasiera batean *Maiatzeko Lorak* deituriko programa antolatzen zutela, baina dena, kultura edo hizkuntzarena izanda ere, "kontsumora" bideratutako egitaraua zela. Euskara eta kultura modu ludikoan jendeari eskaintzeko ideien bila ari zirela bururatu omen zitzaien *Orbel Jokoak* ginkana, duela sei urte.

Hiru asteko iraupena du jolasak eta astero proba bat izaten dute zazpi egun horietan burutzeko. Hiru lagunez osatutako taldeak dira; Irizarrek azpimarratu digunez, "adin guztietako partaideak daude, nerabeetatik hasi eta jubilatuetara artekoak". Nolako probak? Aurreneko astean, adibidez, ho-

geita bost galdera dituzte erantzuteko, herriko historiaz, kulturaz, geografiaz, Euskal Herrian urte horretan izan den gertakizun edo urteurren bati lotutakoak... Azken denboraldian, esaterako, Azkoitiko ateak hartu dituzte gai. Ateak, bai. Karmen Irizarrek adierazi digu "herrian badirela eraikin zahar asko, historia luzekoak, eta badituztela ate bereziak; beraz, zer hoberik herriaren ondarea ezagutarazteko?".


#### NOLA SARITU IRABAZLEA?

Hortxe dago kokka. Finalera heltzen direnei herriko dendetan kontsumitzeko txartelak ematen dizkiete. Irabazleei, horrez gain, *Berrira* egunkariko edo ARGIAko urtebeteko harpidetza eskaintzen zaie aukeran. Nola okurritu zaien hau? Euskal prentsa Azkoitian "gutxi kontsumitzen dela ohartuta" daudela azaldu du Irizarrek, Udal Liburutegian maileguan hartzen diren hamarretik zortzi liburu gaztelarazkoak direla eta beste biak ez dutela zertan euskarazkoak izan.

"Euskaraz irakurri eta euskal prentsan murgiltzeko aukera eskaini" nahian jarri dute sari hau eta "harrera ona" izaten ari dela aitortu digu.

Txikiak txikia bultzatzen duenean gauza politak ateratzen dira. Biba zuek. ●





# 15 urte indarrean, eta ahul



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**K**iotoko protokoloa, 2005eko otsailaren 16a. Duela 15 urte, Japoniako hiriaren izena daraman ingurumen protokoloa jarri zen indarrean. Kiotoko protokoloak klima-aldaketa geldiaraztea eta, horretarako, berotegi-efektua eragiten duten gasen igorpena kontrolatzea du helburu, eta ezarpenaren lehen fasearen (2005-2012) helburua igorpenak % 5,2 murriztea zen. Baina protokoloa onartu zuten herrialde guztiek ez zuten helburu berdina. Alemaniak, esaterako, %21 murriztu behar zituen igorpenak eta beste herrialde batzuei ez zitzaizkien eskatu emisioak jaistea, igoera mugatzea baizik; Espainiako Estatuak, adibidez, igorpenak %15 igo behar zuten soilik.

Berez, protokoloa urte batzuk lehenago onartu zen, 1997ko abenduaren 11n, hamar egunetako negoziazioen ondoren; batzordekide batek “akordioa negoziatzaioari esker baino aldean akidurari esker” lortu zela aitortuko zuen gerora. Batzordeko presidente Raul Estrada Oyuelak protokoloa “aho batez” onartu zela jakinarazi zuenean, Kiotoko kongresu jauregian bildutakoek pozez ospatu zuten. Negoziatzaileen esanetan une horretan lor zitezkeen konpromisorik zabalena eta osoena izan arren, ez zen nahikoa. Pozak ez zuten iraun.

Protokoloaren bidea nekeza izan da. Duela 15 urte indarrean jarri zenean AEBek ez zuten berretsi eta ordura arte



KIOTOKO PROTOKOLOA ADOSTEKO BILKURA, 1997KO OTSAILEAN. HANDIK SEI URTERA, DUELA HAMABOST URTE, JARRI ZEN INDARREAN PROTOKOLOA.

huraxe zen igorpen gehien egiten zuen herrialdea –2005az geroztik Txina da–. Espainiako Estatuak, 2005ean bertan, oso urrun geratu zen %15eko igoeratik (%52) eta hurrengo urteetan emaitzek ez zuten hobera egin: 2006an %49 igo zituen emisioak eta 2007an, berriro, %52.

Bigarren fasea (2013-2020) are ahulago hasi zen, gas igorle nagusietako batzuk, hala nola AEBek, Kanadak eta Errusiak protokoloaren luzapena ez onartzea erabaki baitzuten. Lehen fasean planetako gas igorpenen %65 arautzen zuen akor-

dioak; bigarren fasean %15 besterik ez.

Bigarren fase hori 2020ko abenduaren 31n amaituko da, baina adituek urte amaierara iritsi beharrik ez dute balantzea egiteko eta protokoloak porrot egin duela ondorioztatzen. Batetik, helburuak ez direlako bete eta, bestetik, askok hasieratik garbi zuten eta ikerlanek geroz eta nabarmenago esaten dutenez, akordioaren helburuak bete izan balira ere, klima aldaketa geldiaraztea ez zelako lortuko. Kiotoko protokoloa ia hilda jaio zelako. ●



## Erliebe asiriarrak nonahi

**K**urdistango Faida aztarnategian, arrokan zizelkatutako 10 erliebe aurkitu ditu ikerlari italiarrez eta kurdus osatutako lan-talde batek. Arte-lanok 2.700 urte inguru dituzte eta Sargon II.a erregea irudikatzen dute jainko-jainkosez inguratua.

Aurkikuntza garrantzitsua da horrelako erliebe asiriarrak gutxi aurkitu dituztelako orain arte, baina batez ere

hemendik aurrera askoz gehiago topatzeko itzaropena piztu duelako.

Erliebeak ubide batean topatu dituzte, eta ez tenplu batean edo jauregi batean. Jason Ur arkeologoaren hitzetan, horrek erakusten du horrelako erliebeak “leku guztietan egiten zituztela, baita nekazari xumeenek laboreak ureztatzeko ura biltzen zuten tokietan ere”. ●









# 5.000 irakurle tinkorekin mundua mugituko genuke”

**BERNARDO ATXAGA, IDAZLEA**

*Etxeak eta hilobiak* izango da Bernardo Atxagak argitaratuko duen azken nobela. Horrela iragarri zuen aurkezpenean eta, behin bere ibilbideko fase berri batean sartuta, azken liburuaz gain bere ibilbideari buruz eta aurrerantzean dauzkan asmoez ere aritu gara elkarrizketa honetan.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA  DANI BLANCO

Irribarre ironikoa ahoan duela, momentu batean esan du berari geratu zaiola “halako koadjutore aurpegi bat”, baina ez konfunditzeko, musikazale handia izandakoa dela. Rocka, popa: soinu horiek iritsi ziren eta gazte batzuk olatu gainera igo. Ez konfunditu, denak ere ez. Bernardo Atxagak dio detektatuko lukeela, segituan, zein ibili zen bera bezalatsu txima luzeen eta gitarra elektrikoaren aurreneko astinaldi haietan. Eta zein ez. “Zeren orain jende askok bere historia atzeraka begiratzen du eta... Esate baterako, esaten duena: ‘Niri gehien gustatzen zitzaizkidanak Rolling ziren’. Gezurra. Rolling geroago etorri zen, zu zara faltsario bat”. Ordubete baino gehiago darama gure galderei erantzuten eta mahaiaren gainean flotatzen ari dira objektuak, erreferentziak, denetariko kontuak: orain Shakespeareren sonetoak, gero Saul Steinberg artistak Aldo Buzzi idazlearekin trukatu zituen gutunak, baita LSDa edo telebistako *reality*-ak ere... Tonika bat eskatzera doala esanez altxa baino pixka bat lehenago, bere belau-

naldia markatu zuen musikaz ari zen. Beste bide askotatik ere ibiliko gara *Etxeak eta hilobiak* nobelari buruz izango dugun ia bi orduko hizketa-saioan. Ez dabil jende askorik ostiral arratsalde honetan Gasteizko Lakua hoteleko kafe-tegian, non Atxagak errezibitu gaituen ARGIAren azken zenbakia eskuan duela. Patxadaz jardun dugu elkarrizketaren lehen erdian eta orain, edalontzi batekin itzuli denean, neke handirik gabe ekin dio berriz ere liburuaren estiloaz egin diogun galdera erantzuteari: “Nire ahalegin handiena, edo nagusia behintzat, da kontzeptuari jarraitzea, mugimenduaren kontzeptuari”.

Ez da solasaldian gai hau aipatzen duen lehen aldia. Liburuaren gakoetako bat da. Izan ere, Bernardo Atxagaren azken obran badago sakoneko korrante bat, etengabeko aldaketa bat, gutzia ezarri-ezarian transformatzen duena, atzera bueltarik gabe; baina hain modu gradualean, ezen irakurlea amaierara iristean konturatzen baita nolakoa zen Ugarteko herritarren bizimodua, demagun, 15.

orrialdean; eta nolakoa den 400.enean; eta nola bi mundu horietako portaerek, kezkek, gorputzek, ohiturek, imajinarioek eduki dezaketen distantzia bat milaka urtekoa. Badira aspaldi existitu ahal izango ziren pertsonaiak, guztiz garikideak direnekin orpoz orpo. Eliseo adibidez. Pertsonaia horren xehetasunetan sartu gara: “Artzaina dela jartzen dut. Ofizio batzuk bazeuden Hesiodoren garaian ere, esate baterako artzainak. Eta ez da gauza bera beste ofizio bat, mekanikari bat adibidez”, azaldu du. Pertsonaia hori taxutzeko beste osagai ezinbestekoa, haren jokatzeko modua. “Aro klasikoan pertsona baten ezaugarri baliotsuena zen koldarra ez izatea. Eliseo da, alde horretatik, heroi bat. Badakizu txoke bat baldin badauka, bere bizitza arriskuan jarriko duela inolako zalantzarik gabe. Horrelako pertsona batzuk ezagutu ditut eta beti miretsi izan ditut, zeren nik batzuetan ez daukat ikararik, baina beste batzuetan bai. Eta nik ezagutu dut jendea ikararik gabea. Klasikoak iruditu izan zaizkit beti”.



## Euskaldunak eta bizikletak

“Orain libratu naizelarik beste lanez, igual egingo dut: euskaldun guztiak bihurtuko ditut bizikleta. Eta denak freno a emanda. Beti irudipen hori, euskaldunak ikusten ditudanean beren bizitzan, edozein arlotan. Beti doazela, aldapan behera ere, bizikletari freno a emanda. Errepresioaren usain hori oraindik, frenoak gurpilearekin egiten duen erre usain hori”.

## Telebistak dena aldatu du

“Beti pentsatu izan dut telebista izan dela erabakigarria, aldatu du gure gizartea, aldatu du etxeko altzarien dispozizioa. Egongela Euskal Herrian telebistarekin etorri zen, ez zegoen etxeetan, zegoen jantoki bat erabiltzen zena festetan eta bataio bazkarietan-eta. Eta telebistak izan du sekulako eragina harreman afektiboetan, sexualetan, denetan. Telebista eta gero, han agertzen diren pertsonaiak eta aldameneko gelan daudenak parekoak dira jende gehienarentzat”.

## Mikro munduak

“Asko gustatzen zaizkit hesituta dauden esparruak, mikro munduak mundu zabalago batean. Nire esperientziaren arabera, bai soldadutzan, bai kartzelan, bai ospitaleetan, bizitzak, jendearen espirituak, hartzen duela-ko erliebe bat bezala. Eguneroko bizitza, kalera atera, jendea ikusi... oso erliebe gutxi dauka. Dena dago ohi-turaren atmosferan. Kuartel batean berriz, iritsi eta hilabetera badakizu nor den ustela, nor den traidorea, nor den gaiztoa, nor den zintzoa, nor den eroa... Zergatik? Nabarmendu egiten delako horrelako egoeretan”.

Hesiodotik Homerora pasa da liburu irekitzen duen kapituluaren agertzen den basurdeaz galdetu diogunean eta, bide batez, konparatu dugunean *Obabakoak*-en agertzen zen basurde zuriarekin. “Alfabetoan 27 letra dauden bezala zuk badauzkazu 200 objektu, animalia, espresio... halako saski bat bezala. Eta zu saski horretatik hartuz zoaz. Elementu horietako bat da basurdea. Eta basurdea aukeratzeko dauzkat gutxienez bi arrazoi: bata da, gu umetan bizi ginen herri haietan, As-teasu eta Albiztur, basurdea zela beste toki batzuetan otsoa izan zena. Bel-durra, arriskua. Baina idazlea zaren aldetik, badakizu horrekin bakarrik ezin duzula ezer egin. Orduan, gogor-tzen zara Ulises Itakara nola itzuli zen, sekretuan, Penelopek ez zezan eza-gutu. Honen neskamea, eta Ulisesen amandrea izandakoa, oinak garbitzen hasten zaionean orbaina ikusten dio. Eta gogoratzen du Ulisesek basurde baten hozka izan zuela. Orduan kon-turatzen da Ulises dela”. Beraz, hitz hori erabili duenean, “basurde”, duela 3.000 urtetik daukan karga sinboli-koaz jabetuta egin duela dio Atxagak. “Badakit jende batek esango duela: ‘Beti basurdea’. Baina letrekin bezala gertatzen da saskiko elementu bakoitzarekin: esanahi bat hartuko du edo beste bat, inguruan daukanaren ara-bera. Obabakoak-en badago basurde bat, bai, baina inguratua dago mitolo-giaz: zuria da, ume bihurtu daiteke... Hori da mundu bat. Kasu honetan ez da hori. Da basurde-basurde bat, ka-nalera erortzen dena. Erabiltzen duzu elementu bera, baina ez da gauza bera, testuaren esanahia desberdina da”.

## NOBELAGINTZARI AGUR

Esan dugu ordea, etengabeko aldake-ta da liburuaren ezaugarri nagusie-tako bat: Eliseo prometeikoak eta li-teratura klasikoan ere agertzen zen basurdeak mundu bera partekatzen dute hemen eta orain bizi den jendea-rekin, eta batzuk atzean geratu ahala protagonismoa hartzen dute besteek. Adibidez Martin, zeinaren urratsak ja-rrai ditzakegun umetatik; zeina, gazte garaian, militante maoista dela jakiten dugun; zeina, liburuaren akaberan, guraso kezkatua bihurtu den. Atxaga-ren belaunaldiaren argazki bat? Baietz dio, posible dela. Eta maoistak sartu dituela, “ez ni maoista naizelako, bai-zik eta injustua iruditzen zaidalako

bat-batean zenbat jende ahaztu den hemen. Jende askok borroka handiak egin zituen, arrisku handiak hartu zituen, eta inor ez da gogoratzen. Bihur-tu da ETA izan balitz bezala hemengo organizazio bakarra. Eta izan dira pila bat, jende oso desberdina”.

Bere jenerazioaz ari dela, liburutik harago dauden kontuez ere hasi da, ezinbestean: “Gure eboluzioa ez da batere originala, belaunaldi askok pa-sako dute. Esaten da: udaberria, uda-ra, udazkena... eta gero esaten da de-serrira bidaltzen zaituztela. Ni hortxe nago. Bizitzatik bota egiten zaituzte, hala da”. Hari horri tiraka, *Etxeak eta hilobiak* aurkeztean Atxagak egin zuen iragarpenaz galdetu diogu: ez du no-bela gehiago idatziko, hau da azkena. “Esaten da haritzaren azpian ez dela ezer sortzen. Nobelaren azpian ere ez da ezer sortzen, erre egiten du azpian dagoen guztia. Eman dezagun, liburu hau: aurreneko urtea pasa dut desbi-deak hartzen, atzera-aurrera, denbo-ra, orduak... Eta gero itzultzen. Irudi-tzen zait ez dagokidala jada. Sukaldea jaso behar dut. Seguru asko Durangon argitaratuko dut liburu bat, izena due-na *Zeruko kronikak*. Eta hori dira irra-tian egin nituen testuak. Hori da suka-ldea jasotzea: hau egin nuen eta, nire ustez, ez dago gaizki. Jada serio hartu beharra daukat bizitza. Ikusi nahi dut nire bizitza laser izpi batek argituta bezala. Horrek ez du esan nahi idatzi-ko dudana dramatiko izango denik, gauza batzuk izango dira komikoak, baina askotan esan diot emazteari: ‘Zer dago esan ez den horren atzean?’. Zeren gauza asko ez ditut esan... Eza-gutu dudana jendea... Eta bat-batean esaten dut, ‘ez dut ezer idatzi hari bu-ruz eta hil zen. Zergatik ez dut idatzi? Halako inportantea izan zen nire bizi-tzan’. Eta hori ezin da egin nobela egi-ten duzun bitartean”.

## AZOKAN ERABILTZEN DIREN HITZEKIN

Idazle gisa fase berri batean sartuko den une hau momentu aproposa da galdetzeko ea nolako idazkera bila-tzen duen. Gero eta gehiagotan ikusten dituen gehiegikerien aurrean beste zerbait bilatzen duela dio: “Araue-tako bat niretzat da, fikzioan behintzat, Michel de Montaignek esaten zuen be-zala, azokan erabiltzen diren hitze-kin idaztea. Blaga literarioa *horrela dago*”, esan du eskuekin ugaritasun



keinua eginez. “Literatura dago... bada-kizu nola gelditzen diren sukaldeetako labeak hiru urte erabili eta garbitu gabe? Gantza hori? Literatura dago gantzaz be-tea, gantza erretorikoa, gantza aristokra-tizantea eta nire ustez, asko dator idazle funtzionario batzuen bidetik, ez direnak niretzat autentikoak”.

Horren ifrentzua bilatzen du, sobera-kinik gabeko estilo bat, gardena, “krista-linoa” bere hitzekin esateko, *Etxeak eta hilobiak* ia osoan nagusitzen den hiruga-rren pertsona xehe batean konkretatzen dena. Horrek irakurleari leku asko ematen diola azaldu du. “Ez naiz agertzen, ahal dudan guztietan behintzat. Desagertu egiten naiz, zero graduan nago, ez dut egiten beste idazkera enfatiko horie-tan bezala. Hitz egiteko modu enfatiko horiek... Kutsatu egiten dira. Eskuina horretaz mozkortuta dago, ‘*es indigno*’ eta horrelakoak esaten beti. Garai batean izan ziren espresionistak ere: lepotik heldu irakurleari eta esan ‘hik badakik hau, la ostia duk’ eta abar... Baina nik pentsatzen dut irakurlea lasai dagoela, pertsona inteligentea dela eta eduki de-zakeela lotura emozionala liburuarekin”.

Testutik egile gisa desagertzeko era-baki hori ez da Atxagaren obran kons-tantea izan ordea. Aitortu du lehenbiziko liburuetan, *Etiopia*-n batez ere, bestela-koa zela bere apustua. Eta badirudi idaz-leak aspaldi samarretik ez duela bere burua ikusten hasierako poema haietan. Ñabardura batzuk ordea: Ruper Ordori-kak kantatzen dituen garai hartako tes-tu batzuk salbatuko lituzkeela dio, *Fas fatum* adibidez, baita abesti bihurtu ez diren “beste bi edo hiru poema” ere. *Ha-rea lurrik anonimoena* aldiz, ez. “Ez dut sinatu nahi, erretorika literarioa da”.

Duela zortzi urte *Henry Bengoa Inven-tarium* berriz taularatu zutenean izanda-ko sentsazioak ere gogoratu ditu: “Gure espresioan, gure idazteko, hitz egiteko, jokatzeko moduan, iritziak emateko or-duan, beti egon behar da *ethos* bat, oreka bat, proportzio bat. Eta zu, Donostiako Antiguon poteatzen ari zaren bitartean, ezin zara jarri Brasilgo azken herrixkan bizi den jendearen tokian eta hitz egin haiek bezala. Zuk ez daukazu eskubi-derik. Zu zara gezurtero bat, faltsu bat. Eta nik *Henry Bengoa Inventarium*-en emanaldi hartan, nire burua pixka bat

“

***Nobelaren azpian ere ez da ezer sortzen, erre egiten du azpian dagoen guztia”***

***“Jende askok borroka handiak egin zituen, arrisku handiak hartu zituen, eta inor ez da gogoratzen. Bihurtu da ETA izan balitz bezala hemengo organizazio bakarra”***



erretoriko ikusi nuen, kasu hartan abangoardia erretoriko batean. Benetan, izan zen... min ematen zidaten gihar guztiek pasa nuen tentsioarekin. Oso gogorra da, maite ez duzun zerbait... eta hori ere zurea da”.

#### LITERATURA TXIKIA?

Barre egin du urtetan “euskal literaturaren enbaxadore” izateak zamarik ekarri ote dion galdetu diogunean. “Enbaxadore...”, errepikatu du bekainak altxaz, mamiari sartu aurretik. “Atzerrian ibiltzea niretzat eskola izan da, alde askotatik, asko ikasi dut. Bat-batean pentsatu izan dut, eta ez dut esaten harrokeriaz: ‘Ez dakit nolako idazlea naizen, baina benetako idazlea naiz Britainia Handian edo AEBetan’. Ez noa GKE baten bidez, unibertsitateko ez-dakit-zer irakasleren bidez. Liburua ateratzen du Pantheonek, ateratzen du Harvillek eta joaten naiz Edinburgoko jaialdira idazle bezala. Baina gaur egun, batere ez dit inporta: nik 67 urte ditut, deserrira joan behar dut. Horrek ematen dit askatasuna esateko, euskal literaturak eduki dituela orrialde osoko iruzkinak *Washington Post*-en, *The New York Times*-en, *Le Monde*-n, *Libération*-en eta abar”.

Ibilbide hori egin ondoren, tristuratik haserrera dagoen lekuren batean koka-

“

***Eskuina mozkortuta dago hitz egiteko modu enfatikoez”***

***“Euskal Herriari buruz ‘txiki’ esaten duena, hori gorrotagarria da”***

tuko genuke zenbait euskal idazleren diskurtsoak eragiten dion sentimendua. Ez du ulertzen zergatik “beren burua marjinatez duten” kanpora joan eta hitzaldi bat ematea egokitzen zaienean. “Euskal Herriari buruz ‘txiki’ esaten duena, hori gorrotagarria da. Nola txiki? Konparatzen dute euskal literatura eta aldamenen jartzen dute 200 pertsonak hitz egiten duten ertzeko hizkuntza bat. Marokon egona naiz Tangerreko liburu azokan, baita Greziako liburu azoka askotan ere; egon naiz AEBetan:

zuk konparatzen dituzu euskal literaturaren datuak, zenbat irakurle, zenbat diru ematen duen, zenbat lanpostu... konparatzen duzu Marokorekin eta esaten duzu, ‘mesedez!’. Tangerreko liburu azoka zen tristura bat, azkenean erosten genituen liburuak arabieraz esateko ‘baten batek erosi dik’. Ez duzu imajinatzen. Haiiek ikusiko balute zer gertatzen den Durangon, esango lukete: ‘Baina jende hau zergatik ari da beti negarrez’. Ez dago deretxorik”.

Dagoeneko ilundu du eta oraindik argazki-saioa egiteko daukagu, elkarrizketa bukatzen hasteko unea da. Baina euskal literaturaren tamainaren kontuaz ari garela, Atxagari Franz Kafkaren egunerokoetan irakurritako zerbait etorri zaio akordura. Alemanez idazten zuen Pragako idazleak, eta aipatzen zuen zortea zutela yiddishez idazten zutenek, haien lanek erresonantzia askoz handiagoa zeukatelako. “Benetan balore politiko bat zeukatelako”, dio Atxagak. Euskal literaturarekin gauza bera gertatzen dela uste du, gizarteak onartu ez ezik babestu ere egin dituela euskarazko liburuak. “Euskararen balio politikoa oso posizio fuertea da, non eta eusten diogun. Nahikoa litzateke 5.000 irakurle tinko. 5.000 irakurleren bermearekin, horrekin mugituko genuke mundua”. ●







**ORBEL**

# BARRURANZKO BEGIRADA PAUSATUA

Lau kantako EP batekin plazaratu ziren 2016an. *Hegan* aurreneko disko luzea atera dute 2019an, eta lehengo bidetik, post-rocketik edaten duten erritmo geldoko doinuak bildu dituzte –euskaraz oraingoan–, batzuetan ilunagoak, besteetan argixeagoak. Swans edota Low gisako taldeen oihartzunak suma daitezke, besteak beste, ahots gozo baten eta gitarra distortsio zakarren arteko kontrastean. Txomin Urriza taldeko gitarristak eman digu orain artekoaren eta hemendik aurrerako asmoen berri.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

**P**isukideak ziren lautik hiru, eta sarrri-sarri agertzen zen laugarrena etxe hartara. Mundu desberdin batetik zetorren bakoitza –euskal kantu tradizionaletik Camille Dizabo, formakuntza klasikoa jasotakoa da Anne-Lise Arnaud-Cazamayo, eta The Rodeo Idiot Engine hardcore taldean elkarrekin aritzen ziren Txomin Urriza eta Alan Billi–, baina 30 urteak gerturatu ahala guztien musika zaletasunek egin zuten bat, bai, behintzat, elkarrekin talde bat sortzeko grina pizteraino. “Erakargarria egiten zitzaigun elkarrekin zerbait egitea, bakoitzak jotzen dakien instrumentua joz, besterik gehitu gabe”. Eta hala hasi ziren elkartzen, etxe hartako egongelan, erdi entsegu erdi afari haietan, bolumen oso baxuan joz –bizilagunak haserretuko ote ziren ere–. Oinarrizko erreferentzia batzuk adostu zituzten: Sigur Rós eta Radiohead, nahiz eta gero atera zaizkien doinuek beste jite bat hartu dieten. “Bi talde horiek lasaia dira, poperoak, eta guk egiten genuenari gehitu nahi genion alde ilunago eta bisualago bat”, dio Urri-

zak. Ia urtebete pasa zuten entseatzeko, eta hiruzpalau abesti osatutakoan, entsegu lokalerakoa egin zuten, proiektuari beste seriotasun batez heltzeko.

Erritmo lasaian jarraitu zuten puska batez, ordea. Egiten duten musika motak zerikusi zuzena du horretan, uste dutenez. “Beste estilo batzuetan kantak azkar batean egin daitezke, bi riff atera, horiek zentzu batean errepikatu, gero bestean, eta kito. Musika honek eskatzen du beste denbora bat”. Gainera, hasiera hartan ez zeukaten helburu zehatzik. EPA argitaratzea otu zitzaie-nean hasi ziren zurrunbiloan sartzen, helburuak zehazten, eta diziplinaz entseatzeko. Lehenik musika sortzen dute, ahotsa gehitzen diote gero, eta hitzak idazten dituzte azkenik. Saiatu dira alderantziz egiten, baina ez die funtzionatu orain arte. Gitarra edo piano melodia bat izaten da gehienetan kantaren lehen pizgarria, eta handik tiraka ekiten diote dena egituratzeari.

Une horretan sortzen dira gatazkak, hitzaren zentzurik onenean: “Batek tira



hemendik eta besteak tira handik, bake prozesua baino zailagoa izaten da hori”, dio Urrizak barrez. Askotan jo dute arazo bertsuarekin: kantaren lehen ideia horrek markatzen duen bideari segi ala, kontrara, ihes egiten saiatu. “Ohartu ginen hasierako abesti gehienek formatu bera zeukatela: hasten ziren lasai, eta pixkanaka egiten zuten gorantz, *in crescendo*-an, goi-goian amaituz”. Beraz, joera hori puskatzen saiatu ziren, buklean katramilatuta geratzeko arriskua zutelakoan. “Kanta bat balitz, tira, baina disko batek beste oreka bat eskatzen du, eta hasten zara iragazkia pasatzen, kantu honek merezi du hasierako bide-tik jarraitzea, eta beste honek merezi

du momentu batean haustea”. Gatazkaz gatazka, osatu zituzten lau abesti, eta argitaratu zuten EP labur bat. Ez zen grabaketa arrunta izan. “Aurrena bi abesti grabatu genituen, handik sei hilabetera beste bat, eta handik hilabetera azken bat. Eta lau grabatuta genituelarik, pentsatu genuen EPa ateratzea”.

Barrura begirako abestiak dira Orbelenak, erritmo pausatukoak. Urrizak atsegin du jendea erritmoa mantsotzera behartze hori. “Egun dugun behar handienetako bat da hori. Eguneroko bizi-modua mantsotzea eta arreta gehiago jartzea bestelako gauza askori”. Saiatzen dira musikari bezala ere beren bizitzetatik erritmoak mantsotzen. “Musikari tarte

gehiago utzi nahi badiozu, lan erritmoa mantsotu behar duzu. Horrek eskatzen du zure bizimoduari buruz gogoetatzea”. Aurrez aritu izan den taldeetan –Estricallan, esaterako– kontrako bulkada nagusitzen zitzaion Urrizari. “Rocka, metala, hardcorea... ziztu-biziko musikak dira, libratzeko balio dute, katarsirako. Honek zure baitara biltzen zaitu gehiago, eta banuen gogoia halako zerbaitegiteko”. Konposatzetik zuzenekoetarako jauzia nabaritu dute, halaber. “Hasieran kokatzea kostatu zitzaigun. Orain arte eszena gainean beti izerdia botatzera ohituta, kosta zaigu erregistro honetara ohitzea. Baina ari gara pixkanaka barnekoak askatzen, eta beste modu batera gozatzen”.



“

Musikari tarte gehiago utzi nahi badiozu, lan erritmoa mantsotu behar duzu. Horrek eskatzen du zure bizimoduari buruz gogoetatzea”

“Iruditzen zait publikoa zahartzen ari dela, jende gutxiago joaten dela kontzertu txikietara”

#### TESTUINGURUAREN GARRANTZIA

Musikari bizitzaren alderdirik ederrena biran ibiltzea dela uste du Urrizak. Antzera pentsatzen dute taldekideek ere, aukera txikiena aprobeztatzen baitute egun batzuk libratu eta kanpora joateko. Urrian izan ziren biran azkenengoz. “Punk-hardcore giroan ezagututako sarearen babesean hasi ginen. Lurrazpiko eta periferiako musika horiek badute komunitate bat, eta gu ere hortik gatozenez, kontaktu horiek askorako balio izan digute”. Udaberrian esperimendu berri bat egin nahi dute. Lan kontuengatik eta



bestelako konpromisoengatik lotu samarrak egongo direla eta, Baionatik diámetro luze bat egin eta asteburuetan kontzertuak eman nahi dituzte Euskal Herrian, Espainian eta Frantzian, edozein unetan furgoneta hartu eta etxera bueltatzeko moduan, beti ere. “Ez diogu beldurrik kontzertu bat jotzeko zazpi orduko bidaiara egiteari”. Ez da erraza izaten denen beharrak aseko dituen egutegia zehaztea. Batzuk gogotsuago izaten dira, besteek lotura gehiago dituzte, baina moldatzen dira nola edo hala. “Gauza asko dira onak, baina biran aritze hau sartzen dugu gure bizitzako gauza onen top hiruan. Horren inguruan antolatzen dugu bizitza”.

Biran aritzeak gauza asko ikasteko balio izan die. Urrizak gogoan du une gogor samar bat. “Belgikan jo behar genuen, pub ingeles itxurako taberna-zulo batean. Sartzetik iskinera jarri gintuzten, bazter batean. Hasi genuen kontzertua, eta jendeak hizketan segitzen zuen, oihuka, atea etengabe irekitzen eta ixten zen. Ez zegoen han jotzerik”. Alta, esperientzia ezin aberasgarriagoa izan zela dio. “Konturatzen zara horrelako musikak eskatzen dituela gutxiengo baldintza batzuk, bestelako estilo batzuetan ezinbestekoak ez direnak. Punk edo hardcore talde baten katarsi giroak ahalbidetzen du edozein girori gain hartzea. Desafio moduko bat ere izan daiteke toki zaratatsuetan jotzea, badakizulako hori gainditzeko tresnak dituzula. Aldiz, guk ez daukagu bateriarik, intentsitate baxuko musika egiten dugu. Egun hartatik aurrera, askoz gehiago erreparatzen diogu testuinguruari, eta gutxieneko baldintza teknikoak eskatzen ditugu –teklatu baxuak ondo entzutea, esaterako-. Nahiago dugu kontzertu gutxiago eman, gutxi horiek baldintza egokietan gertatzen badira”. Bururatzen zaizkio hainbat kasu: “Orain bi urteko Usopopen jotako kontzertua oso polita izan zen. Oñatin ere jo genuen eliza batean, jendea eserita eta oso adi zegoela. Eta berriki Frantzia ekialdean jotako bat ere ederra izan zen, Atabal bezalako areto batean, jende guztia isil-isilik zela”.

### MARKATZAILE KULTURAL BATEN PREMIA

Orain gutxi grabatu dute *Hegan* lehen lan luzea Baionan, Johannes Buff ekoizlearekin. Nahita jo zuten berarengana, bazekitelako kalitatez grabatzeaz gain prozesuan eskua sartu zale dela, eta kanpo begirada horrek mesede egingo zela



iruditzen zitzaien. “Askatasun osoz ematen zuen iritzia: zati honek ez du balio, estribilloak ez du maila ematen... baina batez ere, sekulako tipoa da, lanerako ezin aproposagoa”. Gogoan du Buffek hala gomendatuta abesti bat diskotik kanpo utzi zutela. “Irekiegi zegoen kanta. Hala eta guztiz ere, diskoan sartzeko modukoa iruditzen zitzaigun. Berari azaldu genion zer gertatzen zitzaigun, eta azkenean diskotik kanpo geratu da, norabiderik topatu ez geniolako. Ez du merezi gauzak gehiegi bortxatzea, abestirik onenak lehen kolpean ateratzen direnak izaten dira”.

EParekin alderatuta, desberdin egin dute lan disko berrirako. Astean behin entseatuta askorik aurreratzen ez zuten, hiruzpalau asteburu gorde zituzten etxe batean gotortzeko eta abestiak sortzeko asmoz. Era horretara izugarri aurreratu zutela dio Urrizak: “Disko berriko ia kanta guztiak hala sortu ziren. Kantak egiteko modua ez genuen hainbeste aldatu, baina bai erritmoa. Bi asteburuz sortzen aritu ginen, presiorik gabe; hirugarren astebururako dena entzunda geneukan, eta egiturak gure artean negoziatuta; laugarrenean azken ukituak eman, eta kito”.

*Hegan* lan berrian, ingelesetik euskarara igaro dira. Lauen artean hartutako erabakia izan da, nahiz eta azken hitza abeslariarena izan. “Camille euskal kantutradizionaletik datorrenez, musika honekin beste ariketa bat egin nahi zuen hasieran. Behin ariketa hori egin da, eta denon artean hitz eginda, berriz ere euskarara itzuli gara –eta ni pozik nago–”. Iruditzen zaio Euskal Herriko eszena hizkuntza hautuetan beste errit-

mo batean doala. “Frantzia urte luzez ingelesez egin izan da pop musika ona, eta azken urteetan frantsesez egiten hasi dira. Hemen alderantzizkoa pasatzen da”. Eszenaz galdetuta aipatu du erantzun desberdina ematen duela umorearen arabera, baina iruditzen zaio egun ez dagoela talderik jendearengan hainbeste eraginik duenik. “Hori ona edo txarra den ez dakit, ziur asko bestelako bide asko dago. Badakidana da –Ipar Euskal Herri hitz egiten dizut– jende asko euskarara eta euskaltasunera hurbildu izan dela musikaren bitartez, eta gaur egun ez dagoela halako markatzaile kulturalik. Hori pena da”. Musika talderen baten inguruan mugimendu berezirik ez sortzeak ez du bereziki kezkatzen, eta estilo eta apustu aniztasun izugarria dagoela iruditzen zaio. “Horrek baino gehiago arduratzen nau jendea kontzertuetara ez joateak. Iruditzen zait publiko zahartzen ari dela, jende gutxiago joaten dela kontzertu txikietara. Leku falta ere sumatzen dut: umea nintzela gaztetxeetan kontzertu pila antolatzen ziren, asteburu joaten ginen Kanbora, Itsasura, Garazira, Hendaiara... Egun ez dago halako eskaintzarik”. Alta, beraien ibili diren giroan komunitate sendoa sumatzen du, laguntzeko prest dagoen jende mordo. “Hori ezinbestekoa da”.

Orbelek atseden hartu zuen aste batzuek elkarriketa hau egin ostean. “Hara eta hona ibili ondoren, batzuek arnasa hartu nahi dute”. Urtarrilaren 17an itzuli ziren Donostiako Tabakalerako Kultura Kultur aretoan. Udaberriaren ekingo diote berriro, ohi dutenez, pausaz, presarik gabe. ●



LIBURUA

# Maitasunaz baino gehiago



## MIREN ETA ERROMANTIZISMOA RAMON SAIZARBITORIA

EREIN, 2019

245 orrialde / Gazteentzat

### XABIER ETXANIZ ERLE

Lehendabizi, Klara hasi zen Saidekin ateratzen". Hitz horiekin ekiten dio Ramon Saizarbitoriak gazte eta helduentzat idatzi duen azken liburuari. Hasieratik ikusten dugu maitasunaren edo maite minaren inguruko nobela izango dela; horretaz eta harreman hauen inguruan sortzen diren eztabaidez, tentsio uneez, goxotasunezko momentuez... ere bai. Klara ibiliko da Saidekin, kurtsoa aurreratuta dagoela agertu den gazte "ezin ederragoa", baina Saidek Mirenen bihotza ere xamurtu du: "Miren bai erakarri zuela Saidek lehendabiziko egunetik. Berehala ikusi zuen oso argia eta erabat atsegina zela, ongi hezia eta izugarri gupoa izateaz gainera". Miren Klararen laguna da eta hasieran honi lagunduko dio Saidekin duen harreman erdi faltsuan, harik eta adiskidetasuna


apurtu maitasunari bide emateko.

Nobelan gizakion harremanak ageri dira, gazteen arteko maitasuna, lehen uneak, amodioa egiteko asmoa... Harreman horrek gainerakoekiko erlazioetan sortarazten dituen gorabeherak, eta abar. Baina horrez gain, nobela honetan beste hainbat kontu ere azaltzen dira –bizitza ez dela zuri-beltzekoa, jakina–: Said marokoarra da –musulmanekiko mesfidantza, terrorismoarekiko lotura...– eta pobrea –ezingo du medikuntza ikasi familiari lagundu beharko diolako–; Mirenek immigranteekin kolaboratuko du Gobernu Kanpoko Erakunde batean... eta egoera, gertakari, ekintza hauek guztiek hainbat gogoeta sortarazten dituzte Mirenengan: "Askotan gogora etortzen zitzaion kontua zen, immigranteekin lana egiten zuenetik. Zenbat gau-

za onera zegoen ohituta, eta ez zekien estimatzen: dutxa, berokuntza, berarentzat bakarrik gela bat edukitzea, ikasi ahal izatea".

Saizarbitoriak gaur egungo gazte bati gerta dakiokkeen maitasun istorioa konstatzen digu, dituen gorabeherak, zorion eta negar unek, bakardade eta lagun sentimenduak azalduz, baina gaur egungo gizarteaz gogoeta egiteko hainbat elementu, gertakari, jokabide, ere badauzkagu *Miren eta erromantizismoa* nobela eder honetan. Lastima editore lanetan falta izan den orrazketa testuan ageri diren hainbat akats ezabatzeko –"ahulki gainean"; "ari entzunda"; "amek ez ziren"...); baina detaile txiki hauek ez dute eragozten irakurketa eta liburuan, eta bertan ageri diren istorioetan, murgiltzea eta gatzatea. ●





MUSIKA

# Zenbat duten oraindik barruan!



Bilboko Errekalde auzoko laukotea.

IKER BARANDIARAN

**B**ilboko Zea Mays taldea bizia eta iraunkorra da, pausoak -txikiak zein handiak- etengabe emanez bere bide propioa eraiki duena harrokeriarik gabeko harrotasunez. Igaro du desertu luzea, ezagutu ditu distira eta ospea, baina ezerk ez du aldarazi, betikoak dira.

Orain dela gutxi aipatu nuen, niretzat Errekaldeko laukotea dela, marketing trikimailuetatik harago, bere ibilbidean jarraitzaileak batu dituen talde baten adibidea: askotan jo, zuzenekoetan dena eman eta hasierako ilusioari eutsita betiere. Badira gehiago, noski, baina hauena oso adibide argia da.

Aspaldi ez nuela beraietaz idazten eta banuen gogo. Aitortu behar dut, daukagun musika eskaintza erraldoiak

despistatuta, urteetan ez diedala taldearen diskoei behar duten arreta jarri, baina tarteka taldea zuzenean ikusi dudanean zur eta lur utzi naute; are gehiago azken urteotan. Munstroak dira agertoki gainean eta egiten dutena erabat disfrutatzen dute, ez dago inongo zalantzarik.

Bada, *Atera* etorri ez bada ere, bere bila jo dut jakin-minez azkeneko lanak zer dakarren ikustera: *Gaur ni naiz* tempo erdiko leloak dituen rock indartsua da, euskal folk introa duena. *Ilara hilobi* Hawkind eta Monster Magnet ahaide dituen rock pisutsua, garatu ahala ia kiribildu egiten dena. *Kea* electro-rock, pop eta new wave puska, hit!a agian. *Hiri eri*-n Cicatrizen trazako introari pop-rock gihartsua eta itsaskorra gai-



**ATERA**  
MUGALDEKOAK BAND

GARDEN RECORDS, 2019

lentzen zaio nagusitasunez. *Atera* pop-a da letra larriekin: gardena, goxoa, malenkonía puntuarekin... *Haizearen jainko beltza*-k elektronika, makinatxoak eta post-rocka erritmo dantzagarrien zerbitzura jartzen ditu. *Bidegurutzean XXI*. mendeko rock indartsua eta ukitu epikoaren arteko ezkontza. *Zintzilik* elektronika dantzagarria eta melodia purian distortsionatu eta zikintzeko ariketa gogotsua. *Edonora* da diskoko pieza azkarrena, doinu soil baina aldi berean sarkorra duena. *Inurriak* minimalista eta geldoagoa, sintetizadoreen laguntzarekin, post-rock eta new wave artean esperoan dagoena. Eta, azkenik, taldea elektronika eta noisea ezkontzen "andereñoa" dela erakusten duen *Ur-jauzia*. ●



# Gazte eta bizi

 DABI PIEDRA  7 KATU

**A**ste osoko plana prestatu zuen Bilboko 7 Katu gaztetxeak urtarriaren 27tik otsailaren 2ra, 13. urteurrena ospatzeko. Zenbaki madarikatua batzuentzat, itsusia beste batzuen iritzian, biribil-biribila ez behintzat, baina edozein gaztetxerentzat 13 urtera heltzea lorpen handia denez, gogoz ospatu zuten, aurreko urte guztietan egin duten legez.

Gazteek egina eta gazteengan pentsatua da, noski, gaztetxe bateko programazioa, baina 7 Katukoek auzoko eta Bilbo guztiko jendea erakarri nahi izan zuten urteurrenean, gazte zein heldu, eta, horrenbestez, larunbateko kontzertuetara inguratu ginen zenbait *zaharruno*, egitarauak bultzatuta: Amooma, Trikoma eta Suaia & Ama Rebel. Talde gazteak, oholtzara igotzeko gogotsu.

Gaztetxeko atearen parean, Solokoe txeko eskilaretan, ilara luzea aurkitu genuen, barruan ez baitzen inor gehiago kabitzen. “Urteurrena feminista izango

da, edo ez da izango”, kanpoko pankarta handia irakurtzeko astia izan genuen. Gero eta jende gehiago sartu nahian, irteteko gogoz gutxi, baina bost minutuan barruan ginen hala ere. Ordurako, Amooma taldea indar betean ari zen errepertorioko onena ematen.

Funk oinarriaren gainean, hitz aldarrikatzaileak elkarren atzetik josi zituzten Amoomako abeslariak, erritmo lasaiagoz batzuetan, rap errima biziz gehienetan. “Zorionak zuri” abesteko tartea ere hartu zuten. Aretoa gainezka, entzuleak musikariengandik zentimetro gutxitara (agertokia ez da batere altua 7 Katun), jendea gustura, gau handietan legez, batzuk telefonoetan kontzertua grabatzen.

Giroa baretu zen Amoomakoek amaitu zutenean, baina berehala piztu zen sua berriro, Trikoma oholtzara agertu eta berehala. Tronpeta hotsa, gazteak saltoka, eta heldu batzuk ere bai, gu ez bainkinen hango *zahar* bakarrak, gutxiengo

nabaria ginen arren. Gaua biribiltzeko, Suaia & Ama Rebel aritu ziren, jo eta ke. “Dantzatzan duen herria ez da inoiz hilko”, zioen gaztetxeko horma batek.

Gaualdi ederra izan zen, eta gazteak protagonista nagusi: Antolatzaileak, publikoa, musikariak, denak gazte-gazteak. Belaunaldi berriek ez dakitela lehengoek bezain ondo pasatzen? Mundu digitalean baino ez direla bizi? Haiekin mundua pikutara doala? Bai zera, 7 Katu da uste horien kontrako froga, gazte aktiboak daude han, bizi-biziak, gizartearekin eta kulturarekin konprometitua. Urtarriaren 30eko grebagatik, urteurreneko ekitaldi batzuk bertan behera utzi zituzten, eta laster egingo dituzte, norbait gehiagorako gogoz geratu bada. Bestela ere, 7 Katu Bilboko Zazpi Kaleetako ardatz kulturaletako bat da, Lautan Hiru antzerki laburren zikloari, Gazte Sortzaileak dinamikari eta beste proposamen ugariari esker. Urte askotarako, 7 Katu! ●





# Bertso-zopa

Osatu Jone Uriak 2018n Lekeition botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*. Gaia: Zuen begiradak gurutzatu dira. Urduri jarri zara.

Nire etxean zen afaria  
ta \_\_\_\_\_ ondorena  
nire alaben laguntzarekin  
prestatua dugu dena  
ta afaltzera \_\_\_\_\_ osoa  
dena zen poz nabarmena  
nik ahal nuen ondoen egon  
nahian atera \_\_\_\_\_  
amona goxo, jator ta denen  
amona kuttun naizena  
ta afarian ahaztu egin zait  
gure ilobaren \_\_\_\_\_. (bis)

Hasi naiz Miren, ez, ez Garazi  
Saioa edo Ziortza  
baina edozein izen egiten  
zitzaidan horren \_\_\_\_\_  
esaten nion: "pasaidazu hau"  
"ez al duzu nahi arroza?"  
"Beitu bestela \_\_\_\_\_ daukazu  
patata frijitu poltsa"  
Afari osoa sufritzen eta  
nigan mina eta \_\_\_\_\_  
afari osoan deitu baitiot  
laztana eta \_\_\_\_\_. (bis)

Bera begira jarrita okertzen  
nuen beheruntz betazala  
baina orduan \_\_\_\_\_ dit  
ta pentsatu dut: "aibala!"  
Orain \_\_\_\_\_ esan behar dit"  
ta leundu zait azala  
baina ez du esan, isilik dago  
denbora pasa \_\_\_\_\_  
ta begiradaz parkatu esan  
eta esan diot hala:  
"Eskerrik asko egitearren  
ezer ez balitz \_\_\_\_\_. (bis)



Word search grid with letters: D M U I S T J G V T O I I J I B E G I R A T U O U L A B R I D C E D A B F J A J I Z C B R E J R D L I H A T L O T S A G V U E C P P H R D H E O O F M E R U Z A N F R P E L H I L P R S G M T E B O C M T I U C J M H T P I C T V E Z B A I R L A Z Z S F M Z F N O J N C E R I L S T I U A A L A Z E B Z G B O A N Z M E J T E L Z U O A R V C H I C B Z T A L I V E G F V Z L A F A D A G V V N Z D L A I D T A N E M E K R M T M B O R G A I P J O Z T H E N S A V U I A S U O U J O P Z I

# Sudoku

ERRAZA

9x9 Sudoku grid with some numbers filled in.

ZAILA

9x9 Sudoku grid with some numbers filled in, labeled as 'ZAILA'.

# Gurutzegram

9x9 grid with red squares indicating a crossword pattern.



seinalea. **7.** Janari gisa asko erabiltzen den tuberkulua (pl). **8.** Edade. Lokarri, lotura.

### EZKER-ESKUIIN:

**1.** Kristau otoiizen amaieran ezartzen den hitza. Erraz. **2.** Bikun. **3.** Garoa, iratzea. Sekzioa, departamendua. **4.** Laiaz lurra irauli. ... hoc, latinezko lokuzioa. **5.** Eritreako domeinua. Bakarkako. **6.** Lohi, likits. Nazioarteko laguntza

### GOITIK BEHERA:

**1.** Trebetasuna. **2.** Mirakulu. **3.** Gai, material. Kontsumorako Prezioen Indizea. **4.** No, tori! Martxan. **5.** Lipar, aldiune. **6.** Argazkiko udalerrria (Gipuzkoa). Galde partikula. **7.** Izu. Zama-abere. **8.** Dolareak. **9.** Edoskiarazi.

### ERBAZPENAK

Nire etxean zen afaria/ta afari ondorena/nire alaben laguntzarekin/ prestatua dugu dena/ta afaltzera famili osoa/dena zen poz nabarmena/ nik ahal nuen ondoen egon/nahian atera kementa/amona goxo, jator ta denen/amona kuttun naizena/ta afarian ahaztu egin zait/gure ilobaren izena./ Hasi naiz Miren, ez, ez Garazi/Saioa edo Ziortza/ baina edozein izen egiten/zitzaidan horren arroza/ esaten nion: "pasaidazu hau"/ "ez al duzu nahi arroza?"/ Beitu bestela lienen daukazu/patata poltsa/ Afari osoa sufritzen eta nigan mina eta \_\_\_\_\_/afari osoan deitu baitiot/laztana eta \_\_\_\_\_/Bera begira jarrita okertzen nuen beheruntz betazala/baina orduan begiratu dit/ta pentsatu dut:"aibala!"/ Orain zuezer esan behar dit"/ta leundu zait azala/baina ez du esan, isilik dago/denbora pasa ahala/ta begiradaz parkatu esan/ eta esan diot hala./"Eskerrik asko egitearren/ ezer ez balitz bezala".

9x9 grid with numbers for word search.

ZAILA

9x9 grid with numbers for word search.

ERRAZA

Word search grid with letters.

ESKER-ESKUIIN: 1. ABILEZIA, 2. MIRARI, 3. EKAL, 4. ZIKIN, 5. SOST, 7. PATAZAK, 8. ADIN, 9. ERADOSKI. LAKOAK. 9. ERADOSKI. 6. ATJUN, AL, 7. IZI, 8. KPI, 4. NO, ABIAN, 5. ISTANT, 1. ABILEZIA, 2. MIRARI, 3. EKAL, 4. ZIKIN, 5. SOST, 7. PATAZAK, 8. ADIN, 9. ERADOSKI. LAIATU AD, 5. ER, BANAKO. 2. BIKOTZ, 3. IRA, SALIA, 4. LAIATU AD, 5. ER, BANAKO. 2. BIKOTZ, 3. IRA, SALIA, 4. LAIATU AD, 5. ER, BANAKO. 2. BIKOTZ, 3. IRA, SALIA, 4. LAIATU AD, 5. ER, BANAKO.

# Enara Iruretagoiena Dominguez

BIZITZA BEZALA, GORPUTZA  
ERE ZIKLIKOAK BAITA



## LINEALKI BIZITZETIK ZIKLIKOKI BIZITZERA

Ostatuko atea zeharkatu eta bezeroak zer eskatuko duen asmatzeko gai da Enara. Kafetegi bateko eramaile izan zen urte luzez. Hura amaitu zen ordea. Ekonomia feminista aldarrikatzen du, eta praktikara eramaten ahalegintzen da, "erronka potolo eta handia" izan arren. OlatuKoop-eko kide da eta bertan lan egiten du sarearen koordinatzaile bezala. "Noiz nago, noiz ez nago" galdetzen dio bere gorputzari, norbera eta norbere bizitza eta gorputza etengabe presente ukateak, egokiago lan egitea ahalbidetzen baitu, besteak beste. Badaki non egon nahi duen eta non ez. Ziklikoki bizitzeko erronka bota zion bizitzari eta erronka irabazi egin du; saiakeran ibiltzen da, behintzat.

## "Inposatzen den linealtasun hori bortizkeria latza da, gu ziklikoak baikara"

Oso ezkutuan dagoen teoria praktikara eraman du Enara Iruretagoiena Dominguezek (Irun, 1984), eta ziklo menstrualak eramaten ikasteko pautak edota gakoak emateko gai da gainera. Bai, ziklikoki bizi da Irundarra. Urte luzez kafetegi bateko barraren gibelean lanean aritu ostean, erraietatik sentituriko deiarri heldu eta Ziklikoki Bizitzen egitasmoa jarri zuen martxan. Ziklo menstrualak gugan duen eragina azalarazi eta horren erritmoan bizi. Bizitza eta gorputza erdigunean jarritz, hilekoaren kulturaren aldarrikapena egiten du eta honen inguruan mintza gaitezen proposatu. Has gaitezen!

**AITZIBER ZAPIRAIN** **IRANTZU PASTOR**

### Ziklikoki Bizitzen egitasmoaren sortzailea zara.

Bai, orain dela hiru urte jarri nuen martxan proiektua. Lehenago Erika Irustaren lanak ezagutu nituen. Menstruazio-pedagogo gisa izendatzen du berak bere burua. Asko daki gaiak eta liburuak ere baditu idatziak eta argitaratuak. Gaur egun hilekoaren kultura deitzen dugun horretaz ari naiz. Irustak Soy1Soy4 komunitate pedagogiko birtuala jarri zuen martxan, eta bertan sartu nintzen; gaur egun, gainera, ohore handiz esan dezaket bertan lan egiten dudala. Nire prozesua egiten hasi nintzen, nire zikloari behaketak... Kafetegi bat neraman garaian eta hura ixteko unea heldu zitzaigun. Beraz nire bizitzarekin zer egin jakin gabe nebilan. Mundu horrek harrapatu eta xurgatu egin ninduen erabat, eta nire bizitzan hainbeste eragin zuenez, bere berri emateko beharra sentitzen nuen. Ziklo menstrualaren inguruan jardun eta komunikatzeko beharra. Nire zikloaren faseak identifikatu nituen, bakoitzaren ezberdinta-

sun eta ezaugarriak ezagutu. Hain handia izan zen niretzako, aurrera egitea erabaki nuen. Jolas moduan hasieran, helburu finkorik gabe, zer gertatuko zen jakin gabe. Eta hala, "nahi dudana egiten dut eta ea zer gertatzen den" pentsatu eta Ziklikoki Bizitzen egitasmoa jarri nuen abian. Idatzi egiten dut, hilekoaren inguruan batetik -hilekoaren kultura bere osotasunean ulerturik-, eta ekonomia feministaz bestetik. Bi eragin-gune hauek ditut. Bizitza eta prozesuak erdigunean nola jarri behatzea interesatzen zait. Gutxika, tailerrak eta topaketak sortu ziren eta zoragarria izaten ari da.

### Zer da, baina, ziklikoki bizitzea?

Bizi garen jendarte honetan utopia dela uste dut. Hilekoaren kulturaren inguruan ez da hitz egiten, ez da existitzen. Sistemak linealak garela esaten digu, soilik produzitza eta erreproduzitza gatzela. Inposatzen den linealtasun hori bortizkeria latza da, gu ziklikoak baikara. Orduan ziklikoki bizitzea da, norbe-





"ASKOTAN ODOL JARIOAREKIN LOTZEN DUGU HILEKOA, BAINA HORI BAINO ASKOZ GEHIAGO DA. HILEKOAREN ZIKLOA EZ DA GELDITZEN".

rak ahalegina egitea, norbere egunerokotasuna norbere zikloarekin lotzeko.

### **Alegia, hilekoak emakumeengan eragiten duena -ez on eta ez txar-errespetatuz bizitzea?**

Hori da. Askotan odol jarioarekin lotzen dugu hilekoa, baina hori baino askoz gehiago da. Hilekoaren zikloa ez da gelditzen. Beti ari da "zerbaitetan". Lau fase ditu, batzaz beste 28 egunetan burutzen direnak. Egun horietan guztietan, gure barrenean sortzen den hormonen dantza sentitzea, ulertzea, eta berorrek bat egitea oso polita da. Nire ustez hain da interesgarria eta garrantzitsua, ezen ezinbestekoa baita egunerokotasunean txertatzea.

### **Gaur egun, eremu pribatuan eta nesken artean aipatu ohi da hilekoa, eta lehen bizipena amarekin eta etxean izan ohi da. Zure iritziz nolakoa izan beharko luke lanketak?**

Hilekoa lehen aldiz etorri orduko, urte luzez eta etengabe izanen dugu gurekin. Gure parte da. Gu gara. Beraz ezinbeste-

koa da informazioa ukatea. Benetako informazioa. Medikuntza hegemonikoan ikerketak aski berriak dira, orain dela hamar urtekoak gutxi gorabehera. Puntu horretan gaude. Oraindik deus ez dagoela esan genezake. Hilekoa gorde egin da, mespretxatu ere bai, eta hilekoa dugun gorputzok ardura kolektibo bat dugula esango nuke. Tailerrak egiten ditudanean nik ez dut leziorik ematen bata xuria jantzita. Komunikatzeko esaten diet. Hitz egin eta partekatzeko. Neuk ere, egitasmoa martxan jarri aurretik, honen inguruan ikasi aurretik, gorabehera handiko zikloak nituen; eta orduan tailerretara etortzen direnei aholkatzen diet, halakorik bizi badute, lasai hitz egiteko. Lagun bati deitu eta mintzatzeko horren inguruan. Guztiz normala baita. Eta gutxika espazio publikora jauzi egingen dugu. Dena baitago gurutzatua.

### **Nola hasten da ziklikoki bizitzen?**

Hilekoa jaisten zaigun lehen egunean hasten da zikloa. Bada hor, nola sentitzen zaren begiratzea izan daiteke aukera, eta horren bueltan idaztea. Nola nagoen ikusi, aldaketa fisikoetan eta psi-

kikoetan erreparatu, nola pentsatzen dudan eta nola ditudan emozioak behatu. Barrura begiratzeaz gain, kanpora begiratzea ere garrantzitsua da. Nola harremantzen naizen aztertzea, alegia. Autobehaketa da azken batean. Eta noski, horretaz guztiaz gain, hitz egitea. Hilekoaren zikloaren inguruan hitz egitea, autobehaketa bezain garrantzitsua da.

### **Ziklikoki Bizitzen webgunean, zeuk zeure hilekoaren odolarekin eginiko margolanak ikus daitezke. Nolatan hasi zinen horretan?**

Jolas bat izan da niretzako. Komunitate birtualean nire egungo lagun mina dena ezagutu nuen eta hark animatu ninduen. Probatu egin nuen eta egun, niretzako meditazio moduko bat da. Lasaitu egiten naiz eta odolak zer esaten didan sentitu, sumatu.

Odola birdefinitzea izan da niretzako. Odola nire gorputzera gerturatzen dut ariketa horretan. Prozesu indartsua izan da. Hileko odolak ama zelulak ditu eta erabilera handia eman diezaiokegu. Margotzea izan daiteke bat, edota landareak ureztatzea beste bat. ●



## Zaldibarko zabortegia ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditu Julian Iantzik

Geologian ere aditua den Julian Iantzi filántropo eta bidaia-agenteak "Amiantour" pakete turistikoa sortu du, nahi duen orok "Zero zonaldea" bertatik bertara ezagutu dezan. Autopistatik hasi eta goiko puntaraino, audifonoetatik azalpenak ematen joango da Iantzi, tartean behin atsedean hartuz berarekin selfie bat atera nahi duenak lasai-lasai egin dezan. Babes-neurririk gabe egingo dute goruntz gainera, zabor-mendian gora gidari lanak egingo dituen Gailurra Xtreme-ko Ibon Gaztañazpirekin batera. Euskal oasiaren onurak ezagutzera emateko egiten dutela adierazi du Iantzik, El Conquistador del fin del mundo saio internazionalistaren grabaziotik bueltan, Kari-beko hotel bateko piszinatik." ●

JULIAN, BESTE TOUR HERRIKOI BATEAN.

### SAREAN ARRANTZATUA

Bosgarren txerria fusilatuko dute Lasarten



Txistua ala listu, hor dago kokka



## Urkulluren hologramarekin arazoak daudela onartu du EHUko Zientzia Fakultateak

EHUko zientzialariek duela hiru urte onartu zuten Iñigo Urkullu, hezur-haragizkoa behintzat, ez dela existitzen, lehendakaria errobotatuta zela zioten zurrumurruei aurre egiteko. Jendea lasaitzeko, haien laborategietan sortutako holograma bat dela jakinarazi zuten, eta horregatik Alonsotegiko gizonaren zurruntasun

hermetiko hori. Zaldibarko zabortegian gertatutakoak direla-eta, jende askok eskatu du holograma erakusteko, baina EHUk azaldu du arazo teknikoak daudela. Koronabirusak haien ordenagailuak kutsatu dituela, txakurrak apunteak jan dizkietela eta amama berriz erretzen hasi dela, argudiatu dute. ●



# ATXEGA JAUREGIA

*jatetxea*

ATXEGA  
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)



# AZOKA 2020



EROSI  
INTERNETEKO  
ARGIAREN  
AZOKAN

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus)